



## **AIARAKO UDALAK 2024ko MAIATZAREN 23an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA.**

### **PRESIDENTEA**

Prudencio Otegui Echevarría jn.

### **ZINEGOTZIAK**

Karmele Población Martínez and.  
Marian Mendiguren Mendibil and.  
Iratxe Parro Uzquiano and.  
Izaskun García Aresti and.  
Irantzu Apodaca Sánchez and.  
Gentza Alamillo Udaeta jn.  
Iñigo Pinedo Vadillo jn.  
Montse Angulo Solloa and.  
Unai Campo Arenaza jn.  
Susana Martín Benavides and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita lauko maiatzaren hogeita hiruan, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Prudencio Otegui Echevarría alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

### **IDAZKARIA**

Naiara Lazpita Marcos and.

Alkate jaunak ongiatorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

#### **1.- Onestea, bidezkoa bada, 2024ko martxoaren 21ean egindako ohiko osoko bilkurako akta.**

Ez da gaiaren gaineko iruzkinik egin, beraz, martxoaren 21ean eginiko ohiko osoko bilkuraren akta bozkatu da, eta bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

#### **2.- Onestea, bidezkoa bada, 2024ko apirilaren 18an egindako ohiko osoko bilkurako akta.**

Ez da gaiaren gaineko iruzkinik egin, beraz, apirilaren 18an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta bozkatu da, eta bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.



### **3.- Onestea, bidezkoa bada, 2024ko maiatzaren 13an egindako ezohiko osoko bilkurako akta.**

Ez da gaiaren gaineko iruzkinik egin, beraz, maiatzaren 13an eginiko ezohiko osoko bilkuraren akta bozkatu da, eta bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

### **4.- Onestea, bidezkoa bada, Laudio eta Aiara udalerrien lurralde-mugaren ikuskapen-akta.**

Udalbatzari puntu honi dagokion 2024ko maiatzaren 14ko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** 2023ko apirilaren 21ean (1703 zenbakiko sarrera-erregistroa), Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak bidalitako idazkia jaso zen Udal honetan. Idazki horretan apirilaren 20ko 93/2023 Foru Agindua helarazten da, Laudio eta Aiara udalerrien arteko muga-lerroa aitortzeko espedientea hastekoa eta batzordea izendatzeko eskatzekoa. Batzorde hori 2023ko maiatzaren 18an izendatu zen Udalbatzaren erabaki bidez, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen mugak, izena, hiriburua eta ezaugarriak arautzen dituen otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren 49. artikuluan xedatutakoa betez.

Aipatutako 4/2011 Foru Arauaren 52. artikulua betez, udalerriak aitortzeko eragiketak egin ondoren, 2024ko apirilaren 15ean (1724 zenbakiko sarrera-erregistroa) Aiara eta Laudio udalerrietako lurralde-mugaren eta mugarri komunaren ikuskapen-akta jaso zen.

**AINTZAT HARTU DA.-** Foru Arauaren 54. artikulua, 39. artikuluekin lotuta, ikuskapen-akta Udalbatzaren erabakiaren bidez onesteko betebeharra ezartzen du, akta jaso eta gehienez ere bi hilabeteko epean. Erabaki guztiak aktan proposatutako ikuskapenaren aldekoak badira, edo udal interesdunek jasotzen dutenetik bi hilabeteko epean desadostasuna adierazten ez badute, egindako ikuskapena behin-behinean onetsiko du sail eskuduneko foru-diputatuak.

Eta, ondoren, 55. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako kasuetan jarriko dira mugarriak, Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak egin beharreko txostena barne, hark ezarriko baititu behin betiko mugarrien koordinatuak, eta udalak arduratuko dira horiek kontserbatzeaz eta zaintzeaz.

Behin mugarriak jarri ondoren, Foru Aldunditik bertatik helaraziko zaio Udal honi, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izan daitezen mugarriak jartzean egon daitezkeen akatsen inguruan, kasuan kasuko udal-erabakietan onetsitako koordinatuei dagokienez. Alegazio horiek ikusita, hala badagokio, foru-aldundi eskudunak behin betiko onetsiko ditu egindako mugatze-eragiketak. Arabako Lurralde Historikokoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta Euskal



Autonomia Erkidegoko Administrazioari eta Estatuko Administrazioari bidaliko zaio, eta horren berri emango zaio Arabako Lurralde Historikoko Lurralde Informazioko Erregistroari.

2024ko apirilaren 15ean jasotako akta aztertu da, eta 4/2011 Foru Arauaren 38. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ditu, bertan honako hauek jasotzen baitira:

- Koordenatuen behin-behineko zerrenda.
- Mugarrien eta beren inguruaren deskribapen laburra eta horiek batzeko modua.
- Jarriko diren mugarri berrien kokalekua, beren ingurua eta horiek batzeko modua.
- Bertaratutakoak, horien izaera, lekua eta data.

**IKUSI DA.-** 2024ko maiatzaren 08ko udal-idazkariaren aldeko txostena.

**IKUSI DA.-** 2024ko maiatzaren 14ko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikulua ematen dizkion ahalmenez baliatuz,

Udalbatzak, zinegotziek aho batez adostuz, ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Aiara-Ayala eta Laudio-Llodio udalerrien lurralde-mugako linearen eta mugarri komunak ikuskapen-akta onestea. Akta hori 2024ko apirilaren 15ean jaso zen Udal honetan (1724 zenbakiko sarrera-erregistroa).

Akta hori Aiara-Ayala eta Laudio-Llodio udalerrietako batzordeetako kideek sinatu zituen, bai eta Arabako Foru Aldundikoek ere, udal-zerbitzu teknikoek berrikusi eta kontrastatu ondoren.

Onespen hori Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakunde mugak, izena, hiriburua eta ezaugarriak arautzen dituen otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren 54. artikuluan xedatutakoa betez egin da.

**BIGARRENA.-** Ebazpen honen berri ematea Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendu Saileko Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuari, espedientea izapidetu dadin. Halaber, Laudio-Llodioko Udalari helaraziko zaio, jakinaren gainean egon dadin.

**5.- Aiarako (Menagarai) 2. poligonoko 733 zenbakiko partzela ixteko obra txikia legeztatzeko emakida ofizioz berrikusteko espedientea. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren nahitazko irizpena eskatzea, hala badagokio.**

Udalbatzari puntu honi dagokion 2024ko maiatzaren 14ko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta



**IKUSI DA.-** 2023ko urtarrilaren 23ko Alkatetzaren 2023/32 Dekretuaren bidez, Jaime Lastagaray Rosales jaunari “Menagarai herriko Aiarako 2. poligonoko 733 zenbakiko katastro-partzela ixteko” obra legeztatzeke udal-lizentzia eman zitzaion; eta horren berri eman zitzaion interesdunari berari eta Menagarai-Beóteguiko administrazio-batzarrari.

**IKUSI DA.-** 2023ko urriaren 19an, udal-arkitekto teknikoak txostena egin zuen, eta honako hau ondorioztatu zuen:

*“Txosten honen xedea da dokumentu hau idatzi duen teknikari berak sinatutako txosten batean egindako akatsaren berri ematea. Txosten hori Aiarako udal-mugarteko (Menagarai) 2. poligonoko 733 zenbakiko partzelan dagoen etxebizitzaren aurrealdean egindako aurrealdeko itxitura legeztatzeke espediente bati buruzkoa da.*

*Menagaraiko administrazio-batzarrak, 2022ko abuztuaren 10ean, itxitura bat zegoela salatu zuen, bidearen jabetza-eremuan zegoela esanez, eta bertan hobekuntza-obrak egiten ari ziren.*

*Udal honetan ez dagoenez itxitura-aldaketarako lizentzia-eskaerarik, eta obra txikia denez, hirigintzako balizko zehapena arintzat jo daiteke, eta jakinarazi zen hori legeztatu daitekeela. Horretarako, itxituraren kokapen-krokisa eta egindako obren balioa eskatu ziren.*

*2022ko abenduaren 18ko txosten teknikoan, hirigintza-antolamendua leheneratzearen aldeko txostena eman zen, salatuak 2022ko abenduaren 28an eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.*

*Txostenaren akatsa izan zen kontuan ez hartzea ordeztu beharreko itxitura bidearen ardatzetik 3,50 m-ko distantziara geratu behar dela, arau subsidiarioen artikuluetan ezartzen den moduan. Gertakari hori itxitura legeztatutzat jotzen zuen txostena egin ondoren egiaztatu zen.*

*149. artikulua. Nahitaezko atzeraemanguneak*

*Eraikuntzaren gutxieneko atzeraemangunea 5 m-koa izango da alboko mugetatik eta aurreko mugatik. Salbuetsita daude eraikuntza lagungarriak eta aurreko artikuluan datorren kasua. Atzeraemangunea handiagoa izango da ondoko kasu hauetan:*

*a - Eraikuntza nagusiko estalkiak lau isurki ez baditu eta gailurrak 7 metrotik gorako garaiera badu, gailur-fatxadari dagokion atzeraemangunea bi metro handiagoa izango da.*

*b - Alboko lurzattia edo lurzatiak finkatuta egonez gero, eraikuntza nagusien arteko distantzia haien teilatu-hegalen garaieren baturaren erdia izango da gutxienez.*

*Aurreko mugaraino honako tarte hauek utziko dira:*

*A.- Errepide eta bideen babesa herriak zeharkatzen dituzten tartetean.*

*(Bidearen ardatzerainoko distantziak)*

*Landa-gunea Errepidea IMD (2001) Lurzatiaren itxitura Eraikuntza-lerroa*

*Aguiñiga A-4613 140 8,50 11,50*

*Añes Landa-bidea (Gutx. 3,50 ardatzera) 3 m. (jabari publikotik)*

*Etxegoien Landa-bidea (Gutx. 3,50 ardatzera) 3 m. (jabari publikotik)*



Lejarzo A-4622 40 8,50 11,50  
Luxo A-4619 169 8,50 11,50  
Lanteno (Petiz auzoa) Landa-bidea (Gutx. 3,50 ardatzera) 3 m. (jabari publikotik)  
Lanteno (Inorza auzoa) A-3634 272 8,50 11,50  
Madaria A-4615 220 8,50 11,50  
Maroño A-4612 220 8,50 11,50  
Jauregi auzoa Landa-bidea (Gutx. 3,50 ardatzera) 3 m. (jabari publikotik)  
Menoio A-4618 184 8,50 11,50  
Olabezar A-4609 930 8,50 13  
Kexaa A-3626 324 8,50 11,50  
Salmantón A-4614 52 8,50 11,50  
Sojo A-4624 304 8,50 11,50  
Zuaza (Zerrabe auzoa) A-3641 985 8,50 13  
(Ikusi bide-atalen eranskina)

\* Landa-bideetan Udalak lurzatiaren itxitura definituko du aurreko mugaren gainean, ardatzetik 3,50 m-ra gutxienez. Kasu horretan eraikuntza-lerroa lehendik dagoen jabari publikotik 3 m-ra egongo da.

**Azaldutakoagatik, jakinarazten da bidearen aurrealdean egindako itxitura ezin dela legezatu kokapenagatik, ez duelako betetzen bidearen ardatzera 3,50 metroko gutxieneko atzeraemangunea”.**

**IKUSI DA.-** 2024ko otsailaren 27an Alkatzaren 2024/113 Dekretua eman zen, eta, horren bidez, honako hau ebatzi zen:

“**LEHENENGOA.** Egintza ofizioz berrikusteko prozedura hastea: 2023ko urtarrilaren 23ko Alkatzaren 2023/32 Dekretua. Horren bidez, Jaime Lastagaray Rosales jaunari Menagarai herriko Aiarako 2. poligonoko 733 zenbakiko katastro-partzela ixteko obra legezatzeko udal-lizentzia eman zitzaion; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 f) artikuluan jasotako erabateko deuseztasun-kausaren eraginpean dagoela iritzita, lehen aipatuenez: 2023ko urtarrilaren 23ko Alkatzaren 2023/32 Dekretuaren bidez obra legezatu da, eta ondoren teknikari eskudunak 2023ko urriaren 19an egindako txostenaren bidez, jakinarazi da ezin zela legezatu kokapenagatik, ez duelako betetzen bidearen ardatzera 3,50 metroko gutxieneko atzeraemangunea.

**BIGARRENA.** Prozeduraren hasieraren berri ematea interesdunari (Jaime Lastagaray Rosales jaunari eta Menagarai/Beoteguiko administrazio-batzarrari), idazkariaren txostenaren kopiarekin batera, hamabost egun baliioduneko epean egoki iritzitako alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

**HIRUGARRENA.** Udal Zerbitzuek interesdunei entzuteko izapidea amaitu ondoren, aurkeztutako alegazioen berri emango da, eta idazkariari igorriko zaio, txosten tekniko egin ondoren, ebazpena emateko txosten-proposamena egin dezan. Idazkariaren txosten-proposamena Udalbatzari helaraziko zaio, eta hark bere egingo du, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatuko du, ebazpen-proposamena erantsita.

**LAUGARRENA.** Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jaso ondoren, nahitaezkoa eta loteslea denez, Udalbatzari igortzea, azter dezan.



**BOSGARRENA.-** *Ebazpen honen berri ematea Udalbatzari hurrengo bilkuran. “*

**IKUSI DA.-** Interesdunei jakinarazpena egin ondoren, eta interesdunei entzuteko emandako epea soberan igaro dela, ikusi da ez dela alegaziorik edo iradokizunik aurkeztu.

**AINTZAT HARTU DA.-** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.f) artikuluan ezarritakoa. Honako hau dio:

*47. artikulua. Erabateko deuseztasuna.*

*1. Administrazio publikoen egintzak erabat deusezak izango dira kasu hauetan:*

- a) Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten badiete.*
- b) Gaiagatik edo lurraldeagatik organo nabarmen eskumen gaberen batek eman baditu.*
- c) Ezinezko edukia badute.*
- d) Arau-hauste penal badira edo halako baten ondorioz eman badira.*
- e) Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik eman badira.*

*f) Funtsezko betekizunak bete gabe ahalmen edo eskubide batzuk eskuratzeko bide ematen duten egintza espresu edo presuntziozkoak, ordenamendu juridikoaren aurkakoak.*

*g) ) Lege-mailako xedapen batean espresuki halakotzat jotako beste edozein.*

Eta erreferentziako espedientean (Espediente: 2022/111/S.04.01.03.03. OBRA TXIKIA L - JAIME LASTAGARAY ROSALES – MENAGARAICO ERIZ BIDEAREKIN MUGAKIDE DEN 2. POLIGONOKO 733 ZENBAKIKO PARTZELAREN ITXITURA LEGEZTATZEA) 2023ko urtarrilaren 23ko Alkatetzaren 2023/32 Dekretuaren bidez obra legeztatu da, eta ondoren teknikari eskudunak 2023ko urriaren 19an egindako txostenaren bidez, jakinarazi da ezin zela legeztatu kokapenagatik, ez duelako betetzen bidearen ardatzera 3,50 metroko gutxieneko atzeraemangunea.

**IKUSI DA.-** 2024ko maiatzaren 2ko udal-idazkariaren txostena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Honako hauetan ezarritakoa:

— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1, 106., 108. eta 110. artikulua.

— Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.g), 21.1.l), 22.2.j) eta k), 53., 63.1.b) eta 110. artikulua.

— Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 2.1.b), 3.1.g), 26.1 eta 27.2 artikulua.

— Irailaren 12ko 167/2006 Dekretuak onartzen duen Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamenduaren eta funtzionamenduaren Erregelamenduaren 16., 18. eta 28.etik 32.erako artikulua.

Udalbatzak, zinegotziek aho batez adostuz, ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren alde aurreko eta nahitaezko irizpena **eskatzea**, 2023ko urtarrilaren 23ko Alkatetzaren 2023/32 Dekretua egintzaren erabateko deuseztasuna deklaratzeko. Horren bidez, Jaime Lastagaray Rosales jaunari “Menagarai herriko





Aiarako 2. poligonoko 733 zenbakiko katastro-partzela ixteko” obra legeztatzeko udal-lizentzia eman zitzaion; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 f) artikuluan jasotako erabateko deuseztasun-kausaren eraginpean dagoela iritzi da.

**BIGARRENA.-** Prozedura ebazteko legezko gehieneko epea etetea, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatzen denetik irizpen hori jasotzen den arte.

**HIRUGARRENA.** Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jaso ondoren, nahitaezkoa eta loteslea denez, Udalbatzari igortzea, azter dezan.

**6.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren arteko lankidetzaz hitzarmena, 2024an Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko; horretarako zuzeneko dirulaguntza emango da.**

Udalbatzari puntu honi dagokion 2024ko maiatzaren 14ko Berdintasun, Immigrazio eta Adinekoen Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko, batzordean esan bezala, harridura sortzen diela azken bi urteetan aurrekontu-partida handitu behar izateak urteko gastu guztiei aurre egiteko, eta hitzarmen hau iazko zenbateko berarekin atera izanak, iaz ez baitzen nahikoa izan. Gaineratu du bere taldea abstenitu egingo dela; izan ere, kudeaketarekin orain arte bezala jarraitzearen alde dauden arren, ez daude ados iazko zenbateko bera esleitzearrekin. Era berean, ez dute ulertzen zergatik egingo den berritzea datorren urtean hilabetetik hilabetera, eta, gehienez, lau hilabetez. Aurreko hitzarmenaren literaltasunak berme handiagoa ematen zio Udalari, eta segurtasun juridiko handiagoa eskaintzen zuen. Horregatik guztiatik, abstenitu egingo dira.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, eta esan du hitzarmenak azaroan sinatzen direla normalean, eta oraindik ez dagoela ezer Aldundiarekin. Hori dela eta, zerbait iristen denean, eta, bestela, urrian, gastua nola doan ikusi beharko da, behar izanez gero kopurua handitzeko tartea izateko.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza berriz, eta esan du osoko bilkuran esaten ari den hori ez dela batzordean esan zena, alkateak esan baitzuen hitzarmenean jarritako zenbatekoarekin itxiko zela urtea.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza berriz, eta erantzun du hori horrela izan dadin saiatzen ari direla, baina ezin bada bete, orduan hitzarmena aldatuko litzateke, kopurua handituz.

Ez da horri buruzko iruzkin gehiagorik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

**ALDEKO BOTOAK: 6 (3 EH BILDU + 3 AIARA BATUZ).**  
**ABSTENTZIOAK: 5 EAJ-PNV**

Hori dela bide, eta



IKUSI DA.- Alday Ongintzako Fundazioak adinekoak zaintzeko laguntza-funtzioa betetzen duela Arespalditzako instalazioetan, eta, 2009az geroztik, bere gain hartzen duela Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa eta funtzionamendua.

IKUSI DA.- Aiarako Udalak Aiara udalerrian zerbitzu horri jarraipena emateko duen interesa.

IKUSI DA.- Aiara-Ayala eta Alday Ongintzako Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmenaren proposamena, 2024an Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko.

IKUSI DA.- 2024ko maiatzaren 14ko Berdintasun, Immigrazio eta Adinekoen Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- 2023rako (2024rako luzatua) udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia dagoela Hitzarmen horrek dakartzan gastuei aurre egiteko.

Udalbatzak, zinegotzien gehiengo osoz, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Aiara-Ayala eta Alday Ongintzako Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmena onestea, 2024an Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko. Honako hau dio:

***AIARA/AYALA ETA ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, 2024an ARESPALDITZAKO EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA KUDEATU ETA MANTENTZEKO.***

*Arespalditzan, sinaduran adierazitako egunean.*

**HONAKO HAUEK BILDU DIRA:**

*Alde batetik, PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA, AIARA/AYALako (Araba) Udaleko alkate-udalburu jauna, XXXXXX egunean egindako ohiko bilkuran hitzarmen hau sinatzeko ahalmenarekin.*

*Beste aldetik, José Ramón GONZALEZ MENDIA jauna, ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOKO presidentea, fundazioaren izenean eta hura ordezkatzuz, hitzarmen hau sinatzeko ahalmenarekin.*

*Naiara LAZPITA MARCOS andreak, Aiarako Udaleko idazkaria naizen aldetik, egintzaren fede ematen dut.*

*Bi aldeek beren karguei dagozkien atribuzioak eta eskumenak erabiliz, agiri hau sinatzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, horretarako*





**HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:**

**Lehenengoa.** - *ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK* adinekoak zaintzeko laguntza-funtzioa betetzen duela Arespalditzako instalazioetan.

2009az geroztik, bere gain hartzen duela Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa eta funtzionamendua.

**Bigarrena.** - Aiarako Udalak 2021eko ekainean onetsi zuela Arabako Foru Aldundiari eskuordetzea Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuaren arloko eskumenak eta Garraio Egokituaren Zerbitzua kudeatzeko enkargua, eta 4 urteko lankidetzeta-hitzarmenaren bidez egikaritu zen; gaur egun horrek indarrean jarraitzen du.

**Hirugarrena.** - Zerbitzuari jarraipena emateko, honako klausula hauen arabera sinatu dute hitzarmena:

**KLAUSULAK**

**Lehenengoa.** - Agiri honen xedea da, alde batetik, Alday Ongintzako Fundazioak bere gain hartzen dituen konpromisoak finkatzea, Arespalditzan dagoen Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa eta funtzionamenduagatik, guztira 14 plaza aldi berean erabiltzeko edukierarekin. Udalak 10 plaza itundu ditu gaur egun Arabako Foru Aldundiarekin. Bai eta Alday Ongintzako Fundazioak lan hori bere gain hartzeagatik Udalak emandako kontraprestazioa ere, hitzarmen honen bidez gauzatutako zuzeneko dirulaguntza baten bidez. -

**Bigarrena.** - Alday Ongintzako Fundazioak zentroa eta bertan egiten den jarduera kudeatzeko konpromisoa hartu du, Aiarako Udalaren Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua arautzen duen Udal Araudiaren arabera (ALHAOn argitaratua, 77. zk., 2021eko uztailaren 12koan). Hala ere, indarrean dagoen arau-esparruaren barruan egingo da, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailak adinekoentzako titulartasun publikoko gizarte-zerbitzuak kudeatzeko ezarritako helburu eta printzipio informatzaileekin.

**Hirugarrena.** - Alday Ongintza Fundazioak prestazio hauek eskainiko ditu Eguneko Arretarako Landa Zentroan:

- a) Informazioa.
- b) Jarraipenaren balorazioa.
- c) Gizarte-laguntza.
- d) Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea eta esku-hartze psikosoziala: • Estimulatzailerak edo errehabilitaziokoak: trebetasunak garatzea; gaitasunak estimulatzeko jarduerak eta ariketa errazak, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko. • Hezkuntza: aisialdia, hezkuntza- eta kultura-jarduerak.
- e) Garraio egokitua, hala badagokio.
- f) Mantenua.



- g) *Geriatría-bainua / higiene pertsonala.*
- h) *Hala badagokio, arropa garbitzeko zerbitzua.*

*Era berean, konpromisoa hartzen du zentroan obrarik ez egiteko eta bere instalazioak edo horien zati bat hitzartutakoaz bestelako erabilera baterako ez erabiltzeko, Aiara/Ayalako Udalak alde zuzena onetsi gabe.*

**Laugarrena.** - *Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa hartzen du, hitzarmen honek irauten duen bitartean, tratatutako pertsonen kopuruaren, profilaren eta emandako zerbitzuen arabera behar beste langile bideratzeko Eguneko Arretarako Landa Zentroaren funtzionamendu egokirako, bai eta zentro horren kudeaketa ekonomikoa garatzeko ere.*

**Bosgarrena.** - *Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ezartzen du, bere printzipio orokorren artean, erantzun publikoarena, botere publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan araututako prestazioen eta zerbitzuen eskaintza eta horietaz baliatzeko modua bermatuko dutela, bai eta elkarren arteko koordinazioaren eta lankidetzaren printzipioa eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimena. Halaber, zioen adierazpenean adierazten du gizonen eta emakumeen arteko berdintasunera hurbildu ahala gertatzen diren aldaketa sozialei egokitu behar zaizkiela gizarte-zerbitzuak. Bi aldeek adierazten dute ezagutzen dituztela Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legean ezarritako xedapenak; eta konpromisoa hartzen dute genero-ikuspegia integratzeko neurriak ezartzeko, bereziki hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiteko, sexuaren arabera bereizitako datuak bildu eta aurkezteko eta hitzarmen honen babesean egiten diren jardueretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren helburua sartzeko.*

*Era berean, Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa hartzen du Aiara/Ayalako Udalarik programak gauzatzean eta horretarako izendatutako langileengan sortzen den edozein aldaketa jakinarazteko, baldin eta Alday Ongintzako Fundazioak ematen duen laguntza-zerbitzuan eragina izan badezake. Alday Ongintzako Fundazioak Eguneko Arretarako Landa Zentroaren funtzionamenduari eta kudeaketari dagokionez beharrezkoa den dokumentazio justifikatua aurkeztuko du. Edonola ere, hitzarmen horretan edozein aldaketa badago, alderdi bien aurretiazko eta berriazko baimena jaso behar da. Udalak Arabako Foru Aldundiarekin Eguneko Arretarako Landa Zentroari buruz sinatu duen hitzarmenean aldaketaren bat badago, Alday Ongintzako Fundazioari jakinaraziko zaio, beharrezkoak diren aldaketak egiteko, aldeak ados jarri ondoren. Zerbitzuak genero-ikuspegia txertatuko du bere programazioan eta jardueretan, eta, bereziki, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egingo du, emakumeak eta gizonak duintasunean eta eskubideetan pareko gisa aurkeztuko ditu, eta genero-rolari eta -estereotipoari buruzko gogoeta txertatuko du eguneroko jardueretan.*

**Seigarrena.** - *Aiarako Udala ez da inola ere hitzarmen hau gauzatzearen ondorioz sor daitezkeen lan-betebeharren erantzule izango, Alday Ongintzako Fundazioaren ardura eskusiboa izango da, enplegatuen eta, bidezkoa bada, Alday Ongintzako Fundazioarekin lan-harremanen bat duten pertsonen lan-harremanari eta lan-antolamenduari buruzko guztia.*

**Zazpigarrena.** - *Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen hasiera-hasieratik eta indarraldi osoan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateko, bai eta Aiara-Ayalako Udalarekiko beste dirulaguntza batzuk itzultzeagatik*



*betebeharrak egunean izatekoa ere. Halaber, adierazten du ez dagoela sartuta indarreko legedian aurreikusitako debekuetakoren batean.*

**Zortzigarrena.** - *Aiarako Udalak, Udaleko lehen mailako gizarte zerbitzuaren bidez, aurkeztutako eskaerak bilduko ditu, eta dagokion administrazio-espeditatea izapidetuko du.*

*Eskaeren balorazioa eta pertsonen lehentasun-ordena zehaztea Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren barruko batzorde baten bidez egingo da, eta hauek hartuko dute parte: zuzendariordea, gizarte-koordinatzailea eta Esku-hartze Sozialeko Saileko gizarte-langilea.*

*Pertsonen hautaketa Gizarte Ongizateko Foru Institutuak egingo du, eta lehentasuna emango dio udalerrian bizi diren pertsonak hartzeari. Hau da, ohiz kanpoko inguruabarririk ezean, puntuazio berdineko kasuetan, Aiarako udalerrian bizi diren pertsonen emango zaie zentroan sartzeko lehentasuna. Horiek Gizarte Ongizateko Foru Institutuari unean-unean indarrean dagoen prezio publikoen araudi erregulatuarekin bat etorritik ezarritako prezio publikoa ordaindu beharko diote; horretarako, dagokion ebazpena bidaliko da.*

**Bederatzigarrena.** *Erabiltzaileak Eguneko Arretarako Landa Zentrora eramateko garraioa ez da hitzarmen honen xedea, Alday fundazioarekin eta Udalarekin zerikusirik ez duen beste erakunde batek kudeatzen baitu zerbitzu hori.*

**Hamargarrena.** - *Zenbatetsi da hitzarmenaren indarraldirako zentroaren kudeaketa eta funtzionamenduari dagokion gastuaren aurrekontua 2024rako udal-aurrekontuan hasieran ezarritako 78.300,00 eurokoa izango dela. Zenbateko horren finantzaketa Aiarako Udalak egingo du, 2024rako luzatutako 2023ko aurrekontuko 231.481001 partidaren kargura.*

*Aiarako Udalak konpromisoa hartzen du aipatutako aurrekontu-partida behar beste handitzeko Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko gastu handiagoa egin ahal izateko, betiere Alday fundazioak behar bezala justifikatzen badu, zerbitzua egoki emateari eragiten dioten aurrekusi ezin diren inguruabarren ondorioz, eta Aiarako Udalaren gizarte-laguntzailearen onespenezekin.*

**Hamaikagarrena.-** *2024ari dagokion kontraprestazioaren ordainketa Alday Ongintzako Fundazioak Udalean gastu guztien ordainagiriak aurkezten dituen eguneko da, datu guztiekin eta legez ezarritako betekizun guztiekin (hornitzailearen izena eta IFZ, Alday fundazioaren izena eta IFZ, fakturaren zenbakia eta data, prestazioaren helburua, xehatutako kopurua eta BEZa), eta langileen kostuari dagozkion ziurtagiriak, hilabete bakoitza bukatzean; beraz, ordainketak hileroko egingo dira.*

*Jarraian zerrendatutako gastuetarako, honako kontzeptu eta/edo kopuru hauek inputatu beharko dira, aurkeztutako justifikazioa baliozkotzat jo dadin:*

- **Elikadura-kostua:** *Alday fundazioak kudeatutako egoitzan zerbitzuak ematen dituen sukaldariaren soldaten eta gizarte-aseguruen % 20ko kostua inputatuko da, Egoitzako eta Eguneko Arretarako Landa Zentroko zerbitzuetan aritzen diren langileak baitira. Era berean, elikagaien kostua justifikatzeko, 6,18 euroko kopurua inputatuko da menu bakoitzeko (2023ko erreferentzia mantenduko da AFak eguneratutako datuak argitaratu arte, eta, horien berri izan ondoren, 2024ko urtarriletik aurrerako atzeraeraginekin ordainduko da), bai erabiltzaileena, baita zerbitzua ematen duen gerokultorearena ere, hilabetean zerbitzua ematen duen egunetan.*



- Gestoriaren kostua: Alday fundazioak gestoriaren kontzeptuan duen gastuaren % 15 inputatuko da; izan ere, fundazioak ematen duen Egoitza zerbitzuarekin partekatutako gastu bat da.
- Erantzukizun zibileko aseguruia: Erabiltzaile kopuruari gehi gerokultoreari dagokion zati proportzionala inputatuko da, Alday fundazioak kudeatzen dituen bi zerbitzuen kopuru osotik (Egoitza + Eguneko Zentroa), bi zerbitzuek partekatzen duten kostua baita.
- Animatzaile soziokulturalaren/ gizarte-langilearen kostua: Alday fundazioak kudeatutako egoitzan zerbitzuak ematen dituen animatzaile soziokulturalaren/ gizarte-langilearen soldaten eta gizarte-aseguruen % 11ko kostua inputatuko da, Egoitzako eta Eguneko Arretarako Landa Zentroko zerbitzuetan aritzen diren langileak baitira.
- Zuzendariaren agirien kudeaketaren kostua: Alday fundazioak kudeatutako egoitzan zerbitzuak ematen dituen zuzendariaren soldataren eta gizarte-aseguruen % 10eko kostua inputatuko da, Fundazioak ematen duen zerbitzua kudeatzeko ardura hartu baitu, Egoitzako eta Eguneko Arretarako Landa Zentroko zerbitzuetan aritzen den langilea baita.
- Lokala erabiltzea: AFaren balioespenaren arabera (210.650,92 euroren % 2; urtean 4.213,02 €, eta hilean 351,09 €); horietatik 3.370,42 € Aldundiak ordainduko ditu, eta Udalak 842,60 €.

Gainera, funtzionatzeko eta mantentzeko beste gastu batzuk diruz lagundu ahalko dira, hala nola: elektrizitatea, telefonia, kontsumigarriak (inprimagailuak, farmazia, burdineria, garbiketa, hornidura), Norbera Babesteko Ekipoak, egunkariak (1 egunero, astelehenetik ostiralera), aisialdirako materiala...

Ordainketa banku-transferentzia bidez egingo da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (Aiarako Udaleko Gizarte Langileak) Alday Ongintzako Fundazioak aurkeztutako agiriaren aldeko txostena igorri ondoren.

Txostena ez bada aldekoa, uste delako ez direla nahikoa justifikatu egindako ordainketa guztiak, gizarte-langileak adierazi beharko du zein kontzeptuk behar duten Alday Ongintzako Fundazioak egiaztatzea, partida zehatz horretan, idatzi beharreko txostenaren barruan.

**Hamabigarrena.** - Hitzarmenaren indarraldia amaitzean, eta luzapen bakoitzean, edonola ere 2025 ekitaldiko urtarrilaren 24a baino lehen, Alday Ongintzako Fundazioak hau aurkeztu beharko du:

- Egindako ekintzen azalpen-memoria, egindako jarduerak, lortutako emaitzak eta haien ebaluazioa adieraziz, espezifikoki jasota emakume eta gizonen berdintasunerako egindako ekintzak, eta sexuaren arabera banatutako datuak aurkeztuz. Jaso ondoren, Aiarako Udaleko gizarte-langileak berrikusi egingo du, eta hurrengo ekitaldirako jarraibideak ezarriko ditu.
- Egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, gastuen eta diru-sarreraren zerrenda zehatzarekin.
- Hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduketak finantzatzeko jasotako dirulaguntza guztien adierazpena erakunde publiko zein pribatuak izan. Inprimakia erantsi da, bete dadin.



- Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean egotearen ziurtagiria, edo elkarteko presidenteak sinatutako baimena, Udalak erakunde horiei aipatutako ziurtagiriak eska diezazkien.
- Zentroko langileen soldata-kostuei buruzko honako dokumentazio hau (gerokultorea, sukaldaria, zuzendaria eta animatzailea/gizarte-langilea): TC-1 eta TC-2ren kopia, dagokion ekitaldian langileei ordaindutako nominen kopia.

**Hamahirugarrena.** - Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailak eta Aiarako Udalak zentroa erabili ahal izango dute jarduerak egiteko, aldezturik Alday Ongintzako Fundazioari jakinarazten badiote. Fundazioak ezingo die uko egin, eskatutako erabilera instalazioetan egiten duten lanarekin bateragarria ez bada salbu, bai Eguneko Arretarako Landa Zentroan eta bai alboko Zaharren Egoitzan.

**Hamalaugarrena.** - Alday Ongintzako Fundazioaren erantzukizuna izango dira hitzarmen hau gauzatzearen betebeharrak betetzetik zuzenean edo zeharka eratorritako gorabeherak, edozein motatakoak direla ere, betiere bere kudeaketari edo funtzionamenduari egozteko moduko jarduerengatik bada.

Inola ere ez da erantzungo ezinbesteko kasuetan, ustekabekoetan edo hirugarrenek egindakoetan; ondorio horietarako, ez ditu bere gain hartuko egunero pertsonak garraiatzean sor daitezkeen kalteak, horretarako dagoen garraioan, beste erakunde batek kudeatzen baitu zerbitzua.

Gorabehera horietako edozein ardura saihesteko, Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa eta betebeharra du aseguru-poliza bat sinatzeko eta ordaintzeko, hitzarmena gauzatzetik erator daitezkeen balizko erantzukizunak betetzeko; horretarako, hitzarmen hau sinatzeko, eta balizko luzapenentarako, aipatutako poliza eta dagokion ordainagiria ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko du.

**Hamabosgarrena.** - Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta ondorioak izango ditu 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.

Aurrekoa gorabehera, hitzarmena amaitutakoan, hitzarmena isilbidez luzatutzat joko da hileroko aldietan (hau da, hilabetetik hilabetera), harik eta alderdietako edozeinek hitzarmenaren mugaeguna iragartzen duen arte, jakinarazpen fede-emailearen bidez, eta jakinarazpen horretan beste alderdiari jakinaraziko zaio hitzarmena indarrrik gabe uzteko borondatea. Kasu horretan, Hitzarmenaren mugaeguna ez da automatikoa izango; aitzitik, haren ondorioak lau (4) hilabetez luzatuko dira, jakinarazpen fede-emaile hori egiten denetik aurrera. Epe horretan, aldeek hitzartutako prestazioak bete beharko dituzte. Nolanahi ere, aldi horretan beste Hitzarmen bat formalizatu ahal izango da edo ondorioak luzatzeko akordio bat lortu ahal izango da.

**Hamaseigarrena.-** I. eranskinean datu pertsonalen tratamenduari buruz ezarritako irizpideak bete beharko dira.

**Hamazazpigarrena.** - Hitzarmen hau baliogabetzeko kausa izango da bi aldeek adostea; funtsezko klausulak ez betetzea, hau da, Alday fundazioak gizarte-laguntza ez ematea edo gaizki ematea; edo Udalak ordaindu beharreko kopuruak hilabete bat baino gehiagoz ez ordaintzea (Alday Fundazioak aurkeztutako dokumentazioan akatsik egon ezean. Kasu horretan, horiek zuzendu ondoren ordainduko da).





**Hemezortzigarrena.** - *Alday Ongintzako Fundazioak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede den programen publizitatean Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren eta Aiara/Ayalako Udalaren lankidetzeta jasotzeko. Ildo beretik, Aiara/Ayalako Udalak, arretaz-zerbitzua zentroan argitaratzen duenean, Alday Ongintzako Fundazioak egiten duen laguntzailana adieraziko du, eta Arabako Foru Aldundiari eskatuko dio, halaber, jarduera horri buruz Aiararako egiten duen publizitatean aintzat har dezala.*

*Komunikazio-, publizitate- eta propaganda-ekintza guztiak, Hitzarmen honekin lotura badute, Arabako Foru Aldundiaren eta Aiara/Ayalako Udalaren alde aurreko jakinarazpena beharko dute, eta bere irudi korporatiboarekin lotuta haiek ezarritako adierazpenei lotuko zaizkie; horrez gain, gizonen eta emakumeen hizkera inklusiboa erabili beharko dute, eta sexua gorabehera pertsonak giza duintasunean berdinak direla erakusten duten irudiak.*

**Hemeretzigarrena.** - *Jarraipen-batzorde bat sortuko da. Batzorde hori Alday Fundazioko langileek eta Udaleko ordezkariak osatuko dute, eta urtean bitan bilduko da, ohiko moduan (maiatzean eta urrian). Aldeetako batek uste badu beharrezkoa dela ezohiko bilera bat egitea, beste aldeari jakinaraziko dio.*

*Era berean, edozein ekitaldi publiko edo pribatu antolatzean (datak, ordutegiak, ekitaldiaren garapena, gonbidatuak, etab.), aurkezpenak, sari-banaketak, itxierak eta antzekoak, deialdia egin aurretik adostuko dira, eta Aiara/Ayalako Udalaren eta Aldundiaren onospena eduki beharko dute. Edonola ere, ekitaldi horietako presidentetza eta presentzia Hitzarmen honen sinatzaileentzat gordeta dago, baita Arabako Foru Aldundiarentzat ere, eta AFaren Protokolo eta Harreman Publikoen zerbitzuak arautuko du.*

*Eta azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, agiri honen bi ale sinatu dira, Arespalditzan.*

*ALKATE-UDALBURUA, - Stua.: Prudencio Otegui Echevarría.*

*IDAZKARIA, - Stua.: Naiara Lazpita Marcos.*

*Alkate-udalburua eta idazkaria, elektronikoki sinatua.*

*FUNDAZIOKO PRESIDENTEA,*

*Stua.: José Ramón González Mendia.*

## **I. ERANSKINA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAK**

*ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOA datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudiaren mende egongo da, eta, bereziki, honako hauen mende: datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra)*





*indargabetzen duena; eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.*

### **Tratamenduko enkarguaren xedea**

*ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOak tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, tratamenduaren arduraduna den AIARA/AYALAKo Udalaren kontura, hitzarmenaren xede den zerbitzua emateko beharrezkoak diren datu pertsonalak tratatzeko.*

### **Eragindako informazioaren identifikazioa**

*Hitzarmenaren xedea betetzearen ondoriozko prestazioak gauzatzeko, AIARA-AYALAKO UDALAK tratamendu-eragilea den ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAren esku jarriko du datu pertsonalak tratatzeko dagozkion ataletan deskribatzen den informazioa.*

### **Iraupena**

*Klausula honetan adierazitakoa indarrean egongo da harreman lotesleak irauten duen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren urteetan. Hori guztia, tratamendu-eragilearen eskura dauden datuak eta informazioa berrikusteko eta egiaztatzeko egokitzat jotzen diren aldizkako berrikuspenak alde batera utzi gabe.*

*Harreman hori amaitu ostean, ALDAI ONGINTZA FUNDAZIOAK datu pertsonalak ezabatu beharko ditu, tratamendu-arduradun gisa dauden betebeharrei buruzko hurrengo atalean aurreikusitakoarekin bat, eta, edozein kasutan, ezingo da inolako kopiarik gorde, AIARA/AYALAKO UDALAK berariazko baimena ematen duenean salbu.*

### **Tratamendu-eragilearen betebeharrak**

*ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK eta, bidezkoa bada, bere ardurapeko langileek betebeharrak hauek izango dituzte:*

- a) Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak, edo horiek sartzeko jasotzen dituenak, agiri honen xede den helbururako bakarrik erabilitea. Ezin izango ditu datuak bere helburuetarako erabili.*
- b) Datuak AIARA-AYALAKO UDALAREN jarraibideen arabera tratatzea.*
- c) AIARA-AYALAKO UDALAREN kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat idatziz jasotzea. Hauek jaso beharko ditu:*
  - *ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAREN eta, bidezkoa bada, datuak babesteko ordezkararen izena eta harremanetarako datuak.*
  - *AIARA-AYALAKO UDALAREN kontura egindako tratamendu-kategoriak.*
  - *Aplikatu behar izanez gero, segurtasuneko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak deskribatzea, honako hauei dagokienez:*
    - *Datu pertsonalak pseudonimizatzea eta zifratzea.*
    - *Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko gaitasuna.*



- o *Gertakari fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero, datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar berreskuratzeko gaitasuna.*
  - o *Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolakuntzako eraginkortasuna egiaztatze, ebaluatze eta balioesteko prozesu erregularrak.*
- d) *Lagapenak eta erabiltzaileen datuak: Oro har, ezin izango zaie daturik jakinarazi hirugarren pertsona edo erakundeei, ordezkaritza eta defentsa judizialaren eremuan hirugarren legitimatuek jakin behar duten informazioa izan ezik.*
- e) *Azpikontratazioa: Debehatuta dago akordio honen xedea osatzen duten prestazioak azpikontratatzea.*
- f) *Kontratazio-prozesu honen ondorioz eskuratu dituen datu pertsonalak isilpean gorde behar ditu, baita xedea amaitu ondoren ere.*
- g) *Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonak, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzea, eta AIARA/AYALAKO UDALAREN esku uztea betebeharrak hori betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa.*
- h) *Datu pertsonalak tratatzeko baimena duen ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK langileen datu pertsonalak babesteko behar duen prestakuntza bermatzea.*
- i) *AIARA/AYALAKO UDALARI laguntzea sarbide-, zuzentze-, ezabatze- eta aurkaratze-eskubideak baliatzen direla, tratamendua mugatzen dela, erabaki indibidualizatu automatizatuak hartzen ez direla (profilak egitea barne) eta, bidezkoa bada, eramangarritasuna bermatzeko. ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK arduradunaren datu-tratamenduari dagozkien eskubideak erabiltzeko eskaeraren bat jasotzen badu, gehenez ere 48 orduko epean jakinarazi beharko dio AIARA/AYALAKO UDALARI.*
- j) *AIARA/AYALAKO UDALARI dagokio interesdunei informazioa emateko eskubidea erraztea, eta, beraz, ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK ez ditu bere informazio-ereduak aurkeztuko. Nolanahi, ere, AIARA/AYALAKO UDALAK emandakoetara joko du, edo datuak biltzeko edozein bitarteko edo kanaletan sartu behar izanez gero, eskatu egingo du.*
- k) *Datuen segurtasun-arrakalak jakinaraztea: ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK AIARAKO UDALARI jakinaraziko dizkio, behar baino gehiago berandutu gabe, eta, bidezkoa bada, 24 ordu baino lehen, mezu elektronikoko bidez hitzarmenaren helburuak egikaritzeaz eta gainbegiratzear arduratzen denari jakin dituen datu pertsonalen segurtasun-arrakalak, baita gorabeheraren dokumentaziorako eta komunikaziorako garrantzizkoa den informazio guztia (zehazki, gorabeheraren deskribapena eta balizko ondorioak, kaltetutako pertsonen maila eta kopurua, gorabehera leheneratzeko eta arintzeko hartutako neurriak). Jakinarazpena ez da beharrezkoa izango hauste hori ez bada arriskua pertsona fisikoaren eskubide eta askatasunarentzako.*
- l) *AIARAKO UDALARI laguntza ematea, bidezkoa bada, datuen babesaren eraginari buruzko ebaluazioak egiteko.*
- m) *AIARAKO UDALARI laguntza ematea, bidezkoa bada, kontrol-agintaritzaren aurretiazko kontsultak egiteko.*
- n) *AIARAKO UDALAREN esku jartzea bere betebeharrak betetzen dituela erakusteko behar den informazio guztia, baita AIARAKO UDALAK edo berak baimendutako beste auditore batek egindako auditoretzak edo azterketak egiteko ere.*
- o) *Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia iraunkorra bermatzen duten segurtasun-neurriak ezartzea. Halaber, modu azkarrean datu pertsonaletarako eskuragarritasuna eta sarbidea berrezartzea ahalbidetzen dutenak gorabehera fisikoa edo teknikoa egonez gero; tratamenduaren segurtasuna*



*bermatzeko ezarritako neurri tekniko eta antolakuntzazkoen eraginkortasuna erregulariki frogatzea, ebaluatzea eta baloratzea ahalbidetzen dutenak. Beste neurririk hartzeko kalterik gabe, onartutako estandarrekin bat etorrira, argibideen bidez alderdien artean ezarri edo adostu daitezke eta, gainera, horretarako ziurtagirien eta egiaztagirien bidez froga daitezke.*

- p) Datuen helburua: *ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK AIARAKO UDALARI datu pertsonalak itzuli behar dizkio eta, bidezkoa bada, prestazioa bete eta gero, horretarako erabilitako euskarriak. Itzultzean ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK erabilitako informatika-ekipamenduetan dauden datu pertsonal guztiak ezabatu behar dira.*

**Zerbitzarien kokapenari buruzko betebeharrak**

*ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK adierazten du bere zerbitzariak Europar Batasunaren barruan egongo direla; bertatik horri lotutako zerbitzuak emango dira. Bestalde, adierazi du hitzarmenaren bizitzan zehar sortzen den adierazpen honen edozein aldaketa komunikatzeko konpromisoa.*

**Tratamendurako argibideak**

*AIARAKO UDALAK datu pertsonalak tratatzeari lotuta honako argibide hauek igorri ditu; ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK TRATAMENDU-ERAGILEAREN funtzioak eta betebeharrak bere gain hartuko ditu honako xehetasun hauekin:*

**Kolektiboak**

*Erakunde adjudikatzailerak sarbidea duen interesdunen kolektiboak eta tratatuko datu pertsonalak honakoak dira:*

**INTERESATUTAKO PERTSONEN MAILA**

- EGOILIARRAK

**Tratatutako datuak**

*ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK honako informazio pertsonal hau trata dezake:*

**Eskura daitezkeen tratamenduko datu pertsonalak:**

- |  |
|--|
| <input type="checkbox"/> NAN/IFZ/NIE/ PASAPORTE-ZENBAKIA |
| <input type="checkbox"/> IZENA                           |
| <input type="checkbox"/> ABIZENAK                        |
| <input type="checkbox"/> POSTA-HELBIDEA                  |
| <input type="checkbox"/> HELBIDE ELEKTRONIKOA            |
| <input type="checkbox"/> TELEFONOA                       |
| <input type="checkbox"/> SINADURA                        |
| <input type="checkbox"/> SEXUA                           |



|   |
|---|
| <input type="checkbox"/> NAZIONALITATEA   |
| <input type="checkbox"/> JAIOTERRIA   |
| <input type="checkbox"/> JAIOTEGUNA   |
| <input type="checkbox"/> ADINA  |
| <input type="checkbox"/> EGOERA ZIBILA  |
| <input type="checkbox"/> EZAUGARRI PERTSONALAK (ALTUERA, PISUA, NEURRIA, BESTEAK BESTE)<br><input type="checkbox"/>   |
| <input type="checkbox"/> EKONOMIKOAK, FINANTZAKOAK ETA ASEGURUENAK (BANKETXEETAKO DATUAK, KONTU KORRONTEA, TXARTELA-ZENBAKIA, ORDAINKETEI BURUZKO DATUAK, SOLDATAK, LAGUNTZAK, BESTEAK BESTE) |
| <input type="checkbox"/> DATUEN KATEGORIA BEREZIAK  |
| <input type="checkbox"/> OSASUNARI BURUZKO DATUAK   |

***Tratatzeko elementuak***

*Tratamendu-eragileak datu pertsonalei lotuta zein eragiketa egingo duen adieraztea.*

**TRATATZEKO ERAGIKETAK**

|  |
|--|
| <input type="checkbox"/> Bilketa (datu-eskuratzea) |
| <input type="checkbox"/> Erregistroa (grabaketa)   |
| <input type="checkbox"/> Egituratzea               |
| <input type="checkbox"/> Aldatzea                  |
| <input type="checkbox"/> Gordetzea (biltegiatzea)  |
| <input type="checkbox"/> Kontsultatzea             |
| <input type="checkbox"/> Lagatzea                  |
| <input type="checkbox"/> Zabaltzea                 |
| <input type="checkbox"/> Ezabatzea                 |
| <input type="checkbox"/> Segurtasun-kopia          |
| <input type="checkbox"/> Berreskuratzea            |

***Segurtasun-neurriak***

I.F.K. C.I.F. P0101100F



*Ezarriko diren beharrezko segurtasun-neurriak AIARAKO UDALAREN Segurtasun Politikan jasota daudenak izango dira, urtarrilaren 8ko Segurtasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren arloan arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren II. eranskinean (Segurtasun-neurriak) aurreikusitakoekin batera.*

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea aipatutako Hitzarmena sinatzeko.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau Alday Ongintzako Fundazioari jakinaraztea, dagokion hitzarmena sina dezan.

## **7.- EAJ-PNV talde-politikoak Palestinari buruz aurkeztutako mozioa.**

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza, eta adierazi du mozioa ez zela Informazio Batzordera eraman nahiz eta Udalean garaiz erregistratu zen, eta beste mozioa erregistratu ondoren bidali ziren biak. Horrelako gauzak hobeto kudeatzeko eta koordinatzeko eskatu du, arraroa dirudielako gertatu zenak.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz erantzun du kasualitate hutsa izan zela. Beste mozioa sozietate zibilak sartu zuen, baina EH BILDUK bere egin zuen. Gaineratu du mozio hori apur bat zaharkituta geratu dela iruditzen zaiola, gauzak dauden bezala egonda zerbait aktiboa egin behar delako.

Ez da horri buruzko iruzkin gehiagorik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 5 EAJ-PNV  
ABSTENTZIOAK: 6 (3 EH BILDU + 3 AIARA BATUZ).

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- EAJ-PNVk Palestinari buruz aurkeztutako mozioa.

IKUSI DA.- 2024ko maiatzaren 14ko Berdintasun, Immigrazio eta Adinekoen Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

Udalbatzak, zinegotzien gehiengo soilez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- EAJ-PNVk Palestinari buruz aurkeztutako mozioa onestea. Honako hau dio hitzez hitz:



Aiarako Udala :

1. Gogor deitoratzen eta gaitzesten ditu Palestinako zein Israelgo pertsona zibilen hilketa guztiak. Hamasek urriaren 7an Israel hegoaldeko biztanleria zibilaren aurka egindako eraso indiskriminatua eta Israelgo Estatu Gazako biztanleria zibilaren aurka egiten ari den erantzun krudel eta neurrigabea onartezinak eta gaitzesgarriak dira.
2. Elkartasuna, maitasuna eta babesa adierazi nahi die biktima guztiei, eta bereziki gogorarazi nahi ditu hildako **15.000 haur eta nerabe** palestinarrak, basakeriaren eta gatazkaren eshumanizazioaren biktimak.
3. Era berean, gogoan du eta elkartasuna, maitasuna eta babesa adierazten die Hamasek hildako Ivan Illaramendi Saizar euskaldunaren senide eta lagunei.
4. Su-eten iraunkor bat eskatzen dio Israelgo estatuari, eta Hamasek bahitu guztiak askatzea, nazioarteko legedia eta, bereziki, NBERen ebazpenak betez. Israelgo Estatuari eskatzen dio, presaz, Nazioarteko Justizia Auzitegiak emandako behinbehineko neurriak aplikatu ditzala, bai eta auzitegiari berari ere, neurri horiek lortzeko baliabide eta ahalegin guztiak egiteko.

El Ayuntamiento de Ayala. :

1. Lamenta profundamente y rechaza contundentemente todos los asesinatos de personas civiles tanto palestinas como israelíes. La agresión indiscriminada de Hamas del 7 de Octubre contra la población civil en el sur de Israel y la respuesta cruel y desproporcionada que el Estado de Israel, está llevando a cabo contra la población civil Gazatí son inadmisibles y repudiables.
2. Quiere mostrar solidaridad, cariño y apoyo a todas las víctimas, y en especial recordar a los más de **15.000 niños niñas y adolescentes** palestinos asesinados, víctimas de la barbarie y de la deshumanización del conflicto.
3. Asimismo recuerda y muestra su solidaridad, cariño y apoyo a los familiares y amigos del vasco Ivan Illaramendi Saizar asesinado por Hamas.
4. Exige un alto al fuego permanente al estado de Israel y la liberación de todos los rehenes por parte de Hamas en el marco del cumplimiento de la legalidad internacional y particularmente las resoluciones de la ONU. Insta al Estado de Israel a aplicar, con carácter de urgencia, las medidas provisionales dictadas por el Tribunal Internacional de Justicia, así como al propio tribunal a no escatimar en medios ni esfuerzos para la consecución de las mismas.





## Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

5. Eskatzen du, ororen gainera, giza bizitzaren balio gorena lehenestea, laguntza humanitario etengabea eta murrizketarik gabeko sartzearen alde eginez, herritarrek ura, elektrizitatea, erregaia, elikagaiak, sendagaiak eta bizitzarako funtsezkoa den guztia eskuratzeko aukera leheneratuz.
6. Salatzen du Gazako biztanleei ezartzen ari zaien zigor kolektiboa; izan ere, Gatazka Armatuen Legearen arabera (besteak beste, Genevako Konbentzioak eta Hayako Konbentzioa barne hartzen dituenak), zigor kolektiboa ez da gerrakrimena bakarrik, Gizateriaren Aurkako Krimena ere bada. Ezein erasok ez du justifikatzen Israel herri palestinarrari ezartzen ari zaion zigor kolektiboa.
7. Kezka agertzen du Zisjordanian gero eta indarkeria handiagoa dagoelako, non dagoeneko palestinarren **373** hilketa zenbatu diren **Urtarril amaieran**, eta gatazka Nazioarteko Komunitateak eta Ekialde Ertaineko herrialde guztiek ekidin behar duten eskualdera hedatzeko arriskua dagoelako.
8. Ongietorria egin nahi die euskal lurraldera iritsi diren Gazako herritar hispaniar palestinarrari, eta euskal erakundeei eskatzen die jarrai dezatela horiek babesten eta beren esku jartzen zaintza- eta erreparazio-mekanismoak eta beren eskubide guztien bermea.
9. Eskatzen dio Nazioarteko Erkidegoari, Nazio Batuei, eskualdeko eragile garrantzitsuen partaidetzarekin, NBERen Israel eta Palestinarako ebazpenen esparruan Nazioarteko Konferentzia bat dei dezan gatazka amaitzeko konponbideak ezartzeko, bi estatu
5. Pide que, ante todo, se anteponga el valor supremo de las vidas humanas, abogando por la entrada de ayuda humanitaria constante y sin restricciones, restaurando el acceso de la población a agua, electricidad, combustible, alimentos, medicamentos y todo lo esencial para la vida.
6. Denuncia el castigo colectivo que se está ejecutando sobre la población Gazatí, ya que según la Ley de los Conflictos Armados que incluye entre otras a las Convenciones de Ginebra y la Convención de la Haya, el castigo colectivo no solo es un crimen de guerra, sino que además está tipificado como Crimen de Lesa Humanidad. Ningún ataque justifica el castigo colectivo que Israel está infligiendo al pueblo palestino.
7. Muestra su preocupación por la creciente violencia en Cisjordania, donde ya se han contabilizado a  **finales de Enero 373** asesinatos de personas palestinas, así como por la peligrosa extensión del conflicto a la región que la Comunidad Internacional y todos los Países de Oriente Medio tienen la obligación de evitar.
8. Quiere dar su bienvenida a las ciudadanas hispano palestinas de Gaza que han llegado a territorio vasco y solicita a las instituciones vascas que continúen apoyándolas y poniendo en su mano mecanismos de cuidado y reparación y la garantía de todos sus derechos.
9. Alienta a la Comunidad Internacional, las Naciones Unidas, con la participación de los actores relevantes de la región a que, en el marco de las resoluciones de la ONU para Israel y Palestina, convoque una Conferencia Internacional para establecer vías de

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



bideragarri eta segururen eraketan oinarrituta.

solución para la finalización del conflicto, basadas en la constitución de dos Estados, viables y seguros.

- |   |  |
|---|--|
| <p>10. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezar ditzala, bere eskumenen esparruan, Europar Batasunak eta NBEk hartzen dituzten akordioak, Ekialde Hurbileko gatazka amaitu eta bake integrala lor dadin, bereziki biztanleria zibilaren babesa.</p> <p>11. Konfiantza du Hamasen urriaren 7ko erasoan UNRWAKo langileen ustezko erantzukizuna argitzeko NBEk OIOSaren bidez irekitako ikerketan, erantzukizunak argitzeko.</p> <p>12. UNRWAK giza eskubideak eta biztanle zibil gazatarren duintasuna babesteko egindako lanaren garrantzia azpimarratu, eta Eusko Jaurlaritzak UNRWari Gazako eta Zisjordaniako biztanleen behar humanitarioak asetzeko egindako ekarpena begi onez ikusten du.</p> | <p>10. Insta al Gobierno Vasco a implementar, en el ámbito de sus competencias, los acuerdos que adopte tanto la Unión Europea como la ONU para que el conflicto en Oriente Próximo llegue a su fin y conseguir la paz integral, especialmente la protección de la población civil.</p> <p>11. Confía en la investigación abierta por la ONU mediante el OIOS para dilucidar la presunta responsabilidad de trabajadores y trabajadoras de UNRWA en el ataque de Hamas del 7 octubre, en aras a depurar responsabilidades.</p> <p>12. Pone en valor el trabajo realizado por la UNRWA para la protección de los derechos humanos y la dignidad de la población civil gazatí y celebra la aportación realizada por el Gobierno Vasco a la UNRWA para cubrir necesidades humanitarias de la población de Gaza y Cisjordania.</p> |
|---|--|

Firmado  
Gentza Alamillo Udaeta

**8.- Rafael Isasi Landak eta, ondoren, Mertxe Azkarraga Bigurik aurkeztutako mozioa, Palestinarekiko Erantzukizuna plataformaren izenean, eta EH-Bildu udalaldeak bere egina, Palestinari buruzkoa.**

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz mozioa azaldu du. Gaineratu duenez, horrek Gernikan gertatu zenaren antza du, armak erosten eta Gazan probatzen ari dira. Egoeraren larritasuna dela eta, jarrera aktiboa eskatzen da.

Ez da horri buruzko iruzkin gehiagorik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 6 (3 EH BILDU + 3 AIARA BATUZ).  
ABSTENTZIOAK: 5 EAJ-PNV

Hori dela bide, eta



**IKUSI DA.-** Rafael Isasi Landak eta, ondoren, Mertxe Azkarraga Bigurik aurkeztutako mozioa, Palestinarekiko Erantzukizuna plataformaren izenean, eta EH-Bildu udal-taldeak bere egina, Palestinari buruzkoa.

**IKUSI DA.-** 2024ko maiatzaren 14ko Berdintasun, Immigrazio eta Adinekoen Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

Udalbatzak, zinegotzien gehiengo osoz, honako hau **ERABAKI DU**:

**LEHENENGOA.-** Onestea Rafael Isasi Landak eta, ondoren, Mertxe Azkarraga Bigurik aurkeztutako mozioa, Palestinarekiko Erantzukizuna plataformaren izenean, eta EH-Bildu udal-taldeak bere egina, Palestinari buruzkoa. Honako hau dio hitzez hitz:

### **ZIOEN AZALPENA**

**Bost hilabete igari ondoren** Israelek Gazako eta Zisjordaniako auzoetan, eskoletan, errefuxiatu-esparruetan, ospitaleetan eta anbulantzietan bonbardaketak eta limiterik gabeko masakreak egiten jarraitzen du. Aldi horretan Nazioarteko Zigor Auzitegiko fiskalak gerra-krimenengatik ikerketak abiatu zituen, eta giza eskubideen aldeko erakundeek eta Nazio Batuetako agentziek premiazkoa dute nazioarteko komunitateak premiazko neurriak hartzea sarraski hori geldiarazteko.

Horri dagokionez, abenduaren 29an, Hegoafrikak Israel genozidioagatik salatu zuen Nazioarteko Justizia Gortean. Hilabete geroago, **auzitegi berak abatzia eman eta Israeli genozidioa saihesteko agindu zion, eta ebatzi honetan aitortu zen gertatzen ari dena herri palestinarraren aurkako genozidioa dela.** Era berean, eta geroago, Amnistia Internationalak dio Israelek ez duela betetzen genozidioa saihesteko agintzen duen Nazioarteko Gortearen epaia, Gazara laguntza humanitario egokia iristen uzten ez duelako.

2023ko urriaren 7tik 2024ko martxoaren

### **EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

Después de 5 meses de bombardeos y masacres incesantes contra la población palestina Israel está bombardeando intencionadamente en la franja de Gaza y en Cisjordania barrios residenciales, escuelas, campos de refugiados, hospitales y ambulancias. En este periodo el fiscal de la **Corte Penal Internacional** abrió investigaciones por crímenes de guerra y organizaciones de derechos humanos y agencias de **Naciones Unidas** urgen a que la comunidad internacional tome medidas urgentes para detener esta masacre.

A este respecto el 29 de diciembre Sudáfrica denuncia ante la Corte Internacional de Justicia a Israel por genocidio. Un mes más tarde el mismo tribunal sentencia y **ordena a Israel que evite el genocidio, reconociéndose en esta sentencia que lo que está ocurriendo es un genocidio contra el pueblo palestino.** Así mismo y posteriormente Amnistía Internacional afirma que Israel desobedece la sentencia de la Corte Internacional que ordena que evite el genocidio al no permitir la llegada a Gaza de ayuda humanitaria adecuada.

Solo entre el 7 de octubre de 2023 y el 4 de



4ra bitartean 30.500 pertsona baino gehiago hil dituzte Gazan, horien artean 13.200 haur gutxienez. Save the Childrenek salatu duenez, haurren heriotza gehiago izan da Gazako Zerrendan azken hilabeteotan 2019tik munduko gatazka guztietan baino. Erakunde horren arabera, ume bat hiltzen da 10 minuturo Gazan.

marzo de 2024 han sido asesinadas en Gaza más de 30,500 personas, entre ellas al menos 13.200 niños y niñas. **Save the Children** denuncia que ha habido más muertes infantiles en la Franja de Gaza en estos últimos meses que en todos los conflictos del mundo desde 2019. Según esta organización, un niño muere cada 10 minutos en Gaza.

Expertos de **Naciones Unidas** alertan de que lo que viene pasando en toda Palestina es un genocidio, e instan a los gobiernos a pasar a la acción afirmando que “los aliados de Israel también tienen responsabilidad y deben actuar ahora, para impedir su desastroso curso de acción de carácter genocida. Todas las partes deben cumplir sus obligaciones en virtud del derecho internacional humanitario y de los derechos humanos.”

Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioaren I. artikulua, Espainiako Estatu sinatzaile duenak, estatuak behartzen ditu gizateriaren aurkako mota horretarako krimenak prebenitzeko eta zigortzeko neurriak hartzerako. Gogora dezagun, gainera, genozidio hori herri palestinar baten aurka egiten dela, **Amnesty Internationalek eta Human Rights Watchek** salatu duten bezala hamarkadak daramatzen herri palestinar baten aurka.

El artículo I de la Convención para la Prevención y Sanción del Delito de Genocidio, de la que el Estado español es firmante, obliga a los estados a tomar medidas para prevenir y sancionar este tipo de crímenes contra la humanidad. Recordemos que además, este genocidio se comete contra un pueblo, el palestino, que lleva décadas sometido a un régimen de apartheid tal como denuncian Amnistía Internacional y **Human Rights Watch**.

Arma enbargatzea ezinbesteko urratsa da norabide horretan, eta betebeharrak morala ez ezik, legezkoa ere bada, Espainiako esparru juridikoan jasotzen den bezala; izan ere, debekatu egiten da arma saltzea gatazkan dauden herrialdeei edo giza eskubideen urraketa handiak gertatzen diren herrialdeei.

El embargo de armas es un paso necesario en esta dirección y una obligación no sólo moral, sino también legal, tal como se recoge en el marco jurídico español que prohíbe la venta de armas a países en conflicto o en los que se dan importantes vulneraciones de Derechos Humanos.

Hauek dira arauak:

Estas normas son:

1. 532007 Legea, abenduaren 28koa,
1. Ley 532007 de 28 de diciembre sobre el



- defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritzza kontrolatzeari buruzkoa.
2. Armen merkataritzari buruzko Tratatu, Espainiak 2014ko martxoaren 17an berretsia.
  3. 2008ko Jarrera Bateratua 944 ASPE, 2008ko abenduaren 8koa, teknologia eta ekipo militarren esportazioak kontrolatzeko arau komunak zehazten dituenak.

Aurretik ere antzeko erabakiak hartu izan ditu Espainiako Gobernuak, hala nola Libian 2011n, armen salmenta etetea, PSOE agintean zela; edo istiluen aurkako materialaren salmenta Venezuelan. 2014ko abuztuan Israeli armak saltzeko aldi baterako etenaldiaren aurrekaria ere badugu. Data horretan, Mariano Rajoy presidente zela, Israelek 2.205 palestinar erahil zituen Gazan, horietatik 538 haurrak. Garai hartan arma-enbargoa justifikatuta bazegoen, gaur egun ezinbestekoa da.

Garrantzitsua da arma-enbargoa bi norabidetan ulertzea, hau da, Israeli armamentua eta segurtasun-teknologia saltzea eta erostea debekatu behar zaio. Espainiak saltzen dituenak baino askoz arma gehiago erosten dizkio Israeli. Israelek Palestina erabiltzen du, batez ere Gazako Zerrenda, esperimentazio-eremu gisa, arma berriak eta errepresio-metodoak probatzeko, eta gero esportatu egiten ditu, munduko biztanleria zibilaren aurka erabiltzeko. Produktu horiek "borrokan frogatutako" gisa iragartzen dira, eta hori balio erantsi bat bihurtu da segurtasunaren eta nazioarteko defentsaren merkatuan. Israelek sustatzen duen marka "borrokan probatua" da, eta Palestinako populazio zibilari buruz probatu diren produktuei egiten die erreferentzia. Genozidio batek kontuak eman beharko lituzke eta ez etekin ekonomikoak.

Espainiako Estatukoek ez ezik, Eusko

control de comercio exterior de material de defensa y de doble uso.

2. Tratado sobre comercio de armas, ratificado por España el 17 de marzo de 2014.
3. Posición Común 2008 944 PESC del Consejo de 8 de diciembre de 2008 por la que se definen las normas comunes que rigen el control de las exportaciones de tecnología y equipos militares.

El Gobierno español ya ha tomado decisiones similares anteriormente, como suspender la venta de armas en Libia, en el año 2011, gobernando el PSOE; o la venta de material antidisturbios en Venezuela. Contamos incluso con un precedente de suspensión temporal de venta de armas a Israel en agosto de 2014. En esta fecha, bajo la Presidencia de Mariano Rajoy, Israel asesinó a 2.205 personas palestinas en Gaza, de los que 538 eran niños y niñas. Si en aquel momento, el embargo de armas estaba justificado, hoy se hace imprescindible.

Es importante entender este embargo de armas de manera bidireccional, es decir, es necesario prohibir tanto la venta como la compra de armamento y tecnología de seguridad a Israel. España compra muchas más armas a Israel de las que vende. Israel usa a Palestina, sobre todo la Franja de Gaza, como campo de experimentación para probar nuevas armas y métodos de represión que luego exporta para ser usados contra la población civil alrededor del mundo. Estos productos se publicitan como "probados en combate" y esto se ha convertido en un valor añadido en el mercado de la seguridad y la defensa internacional. La marca "probado en combate" que Israel promociona, hace referencia a productos que se han probado sobre la población civil palestina. Un genocidio debería rendir cuentas y no beneficios económicos.

Los gobiernos, no sólo del Estado español,



Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta tokiko administrazioek ere mundu osoan bakea mantentzen eta giza eskubideak errespetatzen laguntzeko erantzukizuna eta betebeharra dute, eta, horretarako, Israelek Palestinako herriaren aurka egiten dituen krimen sistematikoaren aurrean duen zigorgabetasuna amaitu behar da.

Giza eskubideak betetzen direla ziurtatzea Administrazioaren maila guztietara hedatzen den betebeharra da, hala nola Israelgo enpresa konplizeetan inbertsio publikoa kontrolatzea. Egia da estatuetako eta lurraldeetako gobernuak zeregin garrantzitsua dutela giza eskubideen sustapenean eta babesean, baina tokiko garrantzitsua dutela giza eskubideen sustapenean eta babesean, baina tokiko gobernuak abangoardian egon behar dute eta pertsona guztientzako giza eskubideen errespetua bermatu behar dute.

Horregatik guztiagatik, Udalak

### **ERABAKI DU:**

- Palestinan berehalako su-etena eskatzea, eta Gobernuari eskatzea Gazako Zerrendan laguntza humanitarioa sartzen eta emango dela ziurtatzea, betiere langile humanitarioen babesa bermatuz.
- Biztanleria zibilaren aurkako eraso guztiak salatzea eta Nazioarteko Eskubide Humanitarioekiko eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearekiko errespetua eskatzea, NBEk guerra-krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak (genozidio eta apartheid-a barne) amaitzeko eta zigortzeko behar dituen mekanismoak aktibatuz.
- Onartzea okupazio koloniala eta apartheid-a direla gatazkaren egiturazko arrazoiak, eta

sino también el Gobierno Vasco, y las administraciones locales tienen la responsabilidad y el deber de contribuir al mantenimiento de la paz y al respeto de los derechos humanos en todo el mundo y esto pasa por acabar con la impunidad de Israel ante sus sistemáticos crímenes contra el pueblo palestino.

Asegurar el cumplimiento de los derechos humanos es una obligación que se extiende a todos los niveles de la Administración como controlar la inversión pública en empresas cómplices de Israel. Si bien es cierto que los gobiernos nacionales y territoriales tienen un papel importante en la promoción y protección de los derechos humanos, los gobiernos locales deben estar a la vanguardia y garantizar el respecto de los derechos humanos para todas las personas.

Por todo esto, el Ayuntamiento de

### **ACUERDA**

- Exigir un alto el fuego inmediato en Palestina e instar al Gobierno a asegurar la entrada y entrega de ayuda humanitaria a la Franja de Gaza, garantizando en todo momento la protección del personal humanitario.
- Denunciar todos los ataques contra la población civil y exigir el respeto al Derecho Internacional Humanitario y al Derecho Internacional de los Derechos Humanos, activando los mecanismos necesario de la ONU para poner fin y castigar los crímenes de guerra y de lesa humanidad, incluyendo los crímenes de genocidio y apartheid.
- Reconocer que la ocupación colonial y el apartheid son las causas estructurales del





nazioarteko komunitateak Nazio Batuen ebazpenak eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea betearazi behar dituela, bake justu eta iraunkorra eraikitzeko berme gisa.

- Israelgo gobernuarekin harreman instituzional guztiak etetea behin betiko su-etena izan arte, Palestinako herriaren giza eskubideak bermatu arte eta Israelek Nazioarteko Zuzenbidea eta Nazio Batuen ebazpenak bete arte.

- Eusko Jaurlaritzari eskatzea, Udal honetatik egiten dugun bezala, Espainiako Gobernuari exiji diezaiotela Estatuko esparru juridikoan ezarritako betebeharrak bete ditzala eta Israeli norabide biko bahitura militarra ezar diezaiola, bai eta Israelekin lankidetzatza militarreko eta segurtasuneko programa guztiak bertan behera utz ditzala ere, Palestinako herriaren eskubideak errespetatu arte.

- Eusko Jaurlaritzari, eta Espainiako Gobernuari Gazako Zerrendaren aurkako bombardaketak eta setioa gelditzeko behar diren neurri diplomatiko guztiak har ditzatela eskatzea, Israelgo gobernuaren eta haren arduradunen aurkako zigor--programa barne, eta Israelgo Estatuarekin harreman diplomatikoak etetea Nazioarteko Zuzenbidea eta Nazio Batuen ebazpenak bete arte.

conflicto y que la comunidad internacional debe actuar y hacer cumplir las resoluciones de Naciones Unidas , el derecho internacional de los derechos humanos como garantía para la construcción de una paz justa y duradera.

- Suspendir todas las relaciones internacionales con el gobierno israelí hasta que haya un alto el fuego definitivo, se garanticen los derechos humanos del pueblo palestino e Israel cumpla con el Derecho Internacional y las resoluciones de Naciones Unidas.

- Exigir al Gobierno Vasco que pida al Gobierno de España que cumpla con las obligaciones estipuladas en el marco jurídico estatal e imponga un embargo militar direccional a Israel, así como la suspensión de todos los programas de cooperación militar y de seguridad con Israel hasta que respete los derechos del pueblo palestino.

- Pedir al Gobierno Vasco y al Gobierno de España que emprenda todas las medidas diplomáticas necesarias para detener los bombardeos y el asedio contra la Franja de Gaza, incluido un programa de sanciones contra el gobierno de Israel y sus responsables y la suspensión de relaciones diplomáticas con el Estado de Israel hasta que no cumpla con el Derecho Internacional y las resoluciones de Naciones Unidad.

Aurreko erabakiak jakinaraztea:

Notificar de los acuerdos anteriores a:

- Iñigo Urkullu Rentería jauna, Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea.
- Josu Iñaki Erkoreka Gervasio jauna, lehen lehendakariordea eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburua.
- Ramiro González Vicente jauna, Arabako Foru Aldundiko diputatu nagusia.
- Pedro Sánchez Pérez-Castejón jauna, Espainiako Gobernuako presidentea.
- José Manuel Albares Bueno jauna, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta

- D. Iñigo Urkullu Rentería, Lehendakari- Presidente del Gobierno Vasco.
- D. Josu Iñaki Erkoreka Gervasio, Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad del Gobierno Vasco.
- D. Ramiro González Vicente, Diputado General de la Diputación Foral de Álava.
- D. Pedro Sánchez Pérez-Castejón, Presidente del Gobierno de España.
- D. José Manuel Albares Bueno, Ministro de Asuntos Exteriores, Unión Europea y



- |  |   |
|--|---|
| Espainiako Lankidetzako ministroa.   | Cooperación española.   |
| • And. Margarita Robles Carrillo, Defentsako ministroa.  | • D <sup>a</sup> . Margarita Robles Carrillo, Ministra de Defensa.  |
| • Josep Borrell i Fontelles jauna, Europar Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goiordezkaria. | • D. Josep Borrell i Fontelles, Alto representante de la Unión Europea para Asuntos Exteriores y Política de Seguridad. |
| • Antonio Guterres jauna, Nazio Batuetako idazkari nagusia.  | • D. Antonio Guterres, Secretario General de las Naciones Unidas.   |

### **9.- Onestea, bidezkoa bada, 2024rako luzatutako 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina aldatzea.**

Udalbatzari puntu honi dagokion 2024ko maiatzaren 14ko Kultura, Kirola, Hezkuntza, Euskara eta Gazteriako Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, 2023ko ekitaldiari dagozkionak jasotzen dituen, 2024rako luzatu zen, aurrekontua luzatzeko akordioa zela eta.

**AINTZAT HARTU DA.-** Plan Estrategiko horren I. eranskinean Kultura eta Kirol arloaren dirulaguntzen jarduera banakatzen da.

**AINTZAT HARTU DA.-** Aiarako Udalaren interes publikoa udalerrian kirola bultzatzeko, eta, bereziki, Boloen kirola.

Udalbatzak, zinegotziek aho batez adostuz, **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.-** Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina aldatzea (Kultura eta Kirol arloaren dirulaguntzen jarduera), eranskin horretan erakunde eta/edo pertsona hauei zuzeneko dirulaguntza gehituz:

- Zuzeneko dirulaguntza Lekubatxe Bolatoki Kluba elkarteari, Luaiondoko Euskadiko Bolo Txapelketa antolatzeko, 4.000 euroko zenbatekokoa, 2023rako (2024rako luzatua) udal-aurrekontuaren 341.481.012 aurrekontu-aplikazioaren kargura, kreditu gehigarriko aurrekontu-aldaketaren arabera”.

### **10.- Onestea, bidezkoa bada, Lekubatxe Kirol Kluba elkartearekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmena, zeinaren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen den, 2024ko Euskadiko Bolo Txapelketa antolatzeko.**



Udalbatzari puntu honi dagokion 2024ko maiatzaren 14ko Kultura, Kirola, Hezkuntza, Euskara eta Gazteriako Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren interes publikoa udalerriko kultura- eta kirol-jarduerak zaindu eta sustatzeko.

**IKUSI DA.-** Lekubatxe Kirol Kluba elkarteak aurkeztutako eskaera. Bertan jakinarazten du 2024ko Euskadiko Bolo Txapelketa antolatzeaz arduratuko dela.

**AINTZAT HARTU DA.-** 2023rako (2024rako luzatua) udal-aurrekontuan kreditu nahiko eta egokia dagoela Hitzarmen horrek dakartzan gastuei aurre egiteko.

Udalbatzak, zinegotziek aho batez adostuz, **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Aiarako Udalaren eta Lekubatxe Kirol Kluba elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena onestea, 2024ko Euskadiko Bolo Txapelketaren antolaketa finantzatzeko. Honako hau dio:

**AIARAKO UDALAREN ETA LUIAONDOKO “LEKUBATXE” BOLO ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA**

-

*Arespalditza, 2024ko maiatzaren \*\*\**

**BILDU DIRA**

*Alde batetik, Ayala-Aiarako Udaleko Prudencio Otegui Echevarría alkate-udalburu jauna, Naiara Lazpita Marcos Aiarako Udaleko idazkariaren laguntzarekin.*

*Beste aldetik, \*\*\* jaun/andrea, adinez nagusia (NAN zk.: \*\*\* ), Luiaondoko “Lekubatxe” bolo elkartearen presidentea.*

**ESKU HARTZEN DUTE**

*Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki-erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorriz.*

*Bigarrenak Luiaondoko “Lekubatxe” bolo elkartearen izenean eta ordezkartzan (IFZ: G01299809); bere nortasuna eta ordezkagarritasuna elkarteak berak emandako ziurtagiriaren*



*bidez egiaztatzen da, aktaren fotokopia aurkeztuz, non Luiaondoko “Lekubatxe” bolo elkartearen presidentea hautatu eta izendatzen den.*

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetz-a-hitzarmen** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

### **HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:**

*I.- Aiarako Udalak arlo guztietan kultura, kirola eta horien tradizioa eta erabilera sustatzeko interes publikoa du, beraz, besteak beste, honako ekimen hauen bidez jardungo du:*

- *Aisialdian, kultura-eskaintzan, herriko jaietan eta bestelako azoketan erabilera-aukerak sortzea.*
- *Kultura eta kirola sustatzeko kanpainak eta jarduerak antolatzea.*
- *Egokitzat jotzen diren beste ekimen batzuk.*

*II.- Aiarako Udalak, udalerrian kultura eta kirola sustatzeko asmoarekin, Hitzarmen honen bidez jardungo du –beste ekimen batzuen artean–. Hitzarmenak Luiaondoko “Lekubatxe” bolo elkarteari “2024rako Euskadiko Bolo Txapelketa” egiteko emango zaion dirulaguntza arautzen du, eta horren antolaketa-kostuaren zati bat diruz lagunduko da.*

*III.- Luiaondoko “Lekubatxe” bolo elkarteak Aiarako herritarrei nahiz udalerriko elkartei irekia dago, eta kultura eta kirola sustatzea eta horien gizarte-erabilera ditu helburu.*

*IV.- Aplikatu beharreko legeria zehatz-mehatz beteta, eta toki-erakundeek lankidetz-a-hitzarmenak sinatzeko duten gaitasuna kontuan hartuta, bi aldeek lankidetz-a-hitzarmen hau gauzatzen dute. Honako hauek bete beharko dituzte:*

### **HIZPAKETAK**

**LEHENENGOA.-** *Aiarako Udalaren Hitzarmen honen xedea da kirola eta kultura sustatzeko hainbat ekimen eta jarduera sustatzea, Luiaondoko “Lekubatxe” bolo elkartearekin elkarlanean eta koordinatuta, 2024rako Euskadiko Bolo Txapelketa antolatzeko.*

**BIGARRENA.-** *Aiarako Udalak egin beharreko sustapen-jardueraren edukia Luiaondoko “Lekubatxe” bolo elkarteak “2024rako Euskadiko Bolo Txapelketa” antolatzeak dakartzan gastuen zati bat diruz laguntzean datza.*

**HIRUGARRENA.-** *Administrazio honek jarduera egiteko emango duen dirulaguntza “2024rako Euskadiko Bolo Txapelketa” antolatzeak dakartzan gastuen zati bat ordaintzeko izango da.*

*Dirulaguntza kalkulatzeko, kontuan hartuko dira txapelketa hori antolatzeak ekarri dituen gastu guztiak, hala nola materiala, publizitatea, sariak etab. Dirulaguntzaren zenbatekotik elkarteak parte-hartzaileengandik lortzen dituen diru-sarrerak deskontatu*



*beharko dira, baita kontzeptu horietarako lortzen diren bestelako dirulaguntzak ere, kontuan izanik elkarteak ezin izango duela aipatutako diziplinetarako gainfinantzaketarik lortu.*

*Hitzarmen honi dagokion dirulaguntza gehienez ere LAU MILA EUROKOA (4.000,00 €) izango da.*

**LAUGARRENA.-** *Udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:*

- a) Jaso dituen dirulaguntza publiko eta pribatu guztien aitortpena, baldin eta diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko badira. Parte-hartzaileen izen-ematetik lortutako kuoten aitortpena barne.*
- b) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, edo, halakorik ezean, Udalak dagokion erakundeei informazio hori eskatzeko baimena.*
- c) “2024ko Euskadiko Bolo Txapelketa” antolatzekeo jarduerari buruzko dokumentazio hau:*
  - Jardueraren gastuen eta diru-sarreraren balantzea (diru-sarreretan parte-hartzaileen kuotak eta beste erakunde publiko batzuen eta zuzenbide pribatuko beste erakunde batzuen balizko dirulaguntzak jasota).*
  - Jardueraren memoria. Memorian hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egingo da, eta partaidetzaren datuak sexuaren arabera banatuta emango dira.*
  - Antolaketa-gastu guztien egiaztagiririk:*
    - Txapelketa antolatzekeo berariaz kontratatu diren langileen gastuak justifikatuz gero: Nominen kopia, Gizarte Segurantzakoa, dagozkion ordainagiriak, kontratatutako langileei dagokien TC-1 eta TC-2ren kopia, hala badagokio, eta dagozkien soldatak ordaindu izanaren egiaztagiria.*
    - Beste gastu batzuk: Legezko betekizun eta baldintza guztiak betetzen dituzten justifikazio-fakturak. Transferentzia bidez ordainduz gero, ordainagiria erantsi beharko da, edo fakturan bertan jaso beharko da eskudirutan ordaindu ote zen.*
  - Elkarteko idazkariaren ziurtagiria, txapelketan parte hartu dutenen kopurua egiaztatzen duena.*

**2025eko urtarrilaren 31** baino lehen ez bada aurkeztu hitzarmen honen laugarren hizpaketan eskatutako justifikazioa, ez da dirulaguntza esleituko, ez justifikatzeagatik, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzekeo prozedurari.

**BOSGARRENA.-** *Dirulaguntzaren xede diren jardueren egikaritze-epeak, salbuespenak salbu, diruz lagundutako urtearen denbora-mugak beteko ditu, hain zuzen ere, 2024. urtea.*

**SEIGARRENA.-** *Dirulaguntza ordaintzekeo modua honako hau da: Aiarako Udalak adostutako dirulaguntzaren % 80 ordainduko du, hitzarmen hau onetsi eta sinatzean.*



# Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

*Gainerako % 20a behin hitzarmenaren LAUGARREN klausulan jasotako dokumentazioa aurkeztuta ordainduko da.*

*Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahalko du horri buruz egokitzat jotzen duen informazioa.*

**ZAZPIGARRENA.-** *Luiaondoko “Lekubatxe” bolo elkarteak publizitate guztian Aiarako Udalaren laguntza eta babesletza adieraziko du, eta hizkera eta irudi ez-sexistak erabiliko ditu.*

**ZORTZIGARRENA.-** *Datuen babesa. AIARAKO UDALAK hitzarmen hau egiteko eta lortzeko erabiltzen dituen datu pertsonalak Administrazio Espedienteak izeneko tratamenduan sartuko dira, udal-jarduera orokorraren administrazio-kudeaketari buruzkoan. Arduraduna 01476 Arespalditzako (Araba) La Iglesia auzoko 3. zenbakian dago. Telefono-zenbakia: 945 39 90 13; helbide elektronikoa: [info@aiarakoudala.eus](mailto:info@aiarakoudala.eus); IFK: P0101100F. Nolanahi ere, datu pertsonalak laga ahal izango zaizkie erregistro publikoei, administrazio publikoko organoei, notarioei eta prokuradoreei, Estatuko segurantzako indar eta kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeei, aseguru-etxeei, osasun-erakundeei eta/edo auzitegi eta epaitegiei. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko eskubidea ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidaliko du korporazioaren helbidera, nortasuna egiaztatzen duen agiria erantsita, edo korporazioaren egoitza elektronikoa horretarako eskuragarri dagoen izapide elektronikoa abiaraziko du. Datuak interesdunarengandik eta/edo haren ordezkariarengandik lortu dira, baita administrazio publikoetatik ere. Informazio gehiago lor daiteke webgunean: [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus); edo harremanetan jarriz telefono-zenbakira deituz: 945 39 90 13.*

**BEDERATZIGARRENA.-** *Luiaondoko “Lekubatxe” bolo elkarteak hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak urratzen baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.*

*Eta adostutakoarekin ados daudela adierazteko, aldeek lankidetzeta-hitzarmen honen hiru aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo zirriborrorik gabe, dokumentu hau osatzen duten 4 orrialdeetako bakoitzean, eta konpromisoa hartu dute goiburuan ageri den lekuan eta egunean betetzeko.*

ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Stua.: Prudencio Otegui Echevarría.

Stua.: Naiara Lazpita Marcos

LUIAONDOKO “LEKUBATXE” BOLO ELKARTEAREN PRESIDENTEA

Stua.: \*\*\*

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea aipatutako Hitzarmena sinatzeko.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 [info@aiarakoudala.eus](mailto:info@aiarakoudala.eus) - 🌐 [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus)





**Hirugarrena.-** Erabaki hau Lekubatxe bolo elkarteari jakinaraztea, dagokion hitzarmena sina dezan.

**11.- Onestea, bidezkoa bada, 2024. urterako Aiarako Udalaren eta Valle de Llanteno Arte Eskolaren arteko lankidetzeta-hitzarmena; horretarako zuzeneko dirulaguntza emango da.**

Udalbatzari puntu honi dagokion 2024ko maiatzaren 14ko Kultura, Kirola, Hezkuntza, Euskara eta Gazteriako Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Udal-interesa dago Valle de Llanteno Arte Eskola Elkarteak urtero Aiara udalerrian egiten duen kultura-zereginarekin lankidetzan jardun eta hori sustatzeko.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta Valle de Llanteno Arte Eskola Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena onestea, 2024rako marrazketa, pintura, zeramika eta zur-lanketaren diziplinak garatzeko gastuen zati bat diruz laguntzeko. Zehazki, irakasleak kontratatzeko eta ikastaroak irakasteko materialen gastuei erantzungo zaie.

**IKUSI DA.-** K2024ko maiatzaren 11ko Kultura, Kirola, Hezkuntza, Euskara eta Gazteriako Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hitzarmenak 2023rako udal-aurrekontuari (2024rako luzatua) dakarkion gastua hartzeko kreditu nahiko eta egokia dagoela, eta, zehazki, aurrekontu-partida izenduna dago hitzarmenerako.

Udalbatzak, zinegotziek aho batez adostuz, **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.--** Aiarako Udalaren eta Valle de Llanteno Arte Eskola Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena onestea, 2024rako marrazketa, pintura, zeramika eta zur-lanketaren diziplinak garatzeko gastuen zati bat diruz laguntzeko. Zehazki, irakasleak kontratatzeko eta ikastaroak irakasteko materialen gastuei erantzungo zaie. Hitzarmenak honela dio, hitzez hitz:

**AIARAKO UDALAREN ETA “VALLE DE LLANTENO” KULTURA ETA ARTEKO  
ELKARTEAREN ARTEKO  
LANKIDETZA-HITZARMENA, 2024. URTEA**

*Arespalditzan, 2024ko maiatzaren <sup>\*\*</sup>(e)(a)n.*



## **BILDU DIRA**

*Alde batetik, Prudencio Otegui Echevarría jauna, Ayala-Aiarako Udaletxeko alkate-udalburu jauna, Ayala-Aiarako Udaletxeko Naiara Lazpita Marcos idazkari andrearen laguntzarekin.*

*Beste aldetik, Luis Padura Elorza jauna, adinez nagusia (NAN zk.: 72712404-C), “Valle de Llanteno” Kultura eta Arte Elkarteko presidentea.*

## **ESKU HARTZEN DUTE**

*Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.*

*Bigarrena, VALLE DE LLANTENO Kultura eta Arteko Elkartearen (IFZ: G-01103795) izenean eta ordezkartzan; bere nortasuna eta ordezkagarritasuna elkarteak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatzen da, aktaren fotokopia aurkeztuz, non “VALLE DE LLANTENO” Kultura eta Arteko Elkartearen presidentea hautatu eta izendatzen den.*

*Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetzahitzarmen** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako*

## **ADIERAZTEN DUTE**

*I.- Aiarako Udalak kultura eta artea sustatzeko eta horiek eremu guztietan erabiltzeko interes publikoa du; beraz, besteak beste, honako ekimen hauen bidez jardungo du:*

- *Aisialdian, kultura-eskaintzan, herriko jaietan eta bestelako azoketan erabilera-aukerak sortzea.*
- *Kultura eta artea sustatzeko kanpaina eta jarduerak antolatzea.*
- *Jarduera guztietan genero-ikuspegia txertatzea.*
- *Egokitzen dituen beste ekimen batzuk.*

*II.- Aiarako Udalak udalerrian kultura eta artea sustatu nahi du; beraz, hori gauzatzeko, besteak beste, hitzarmen hau sinatzen du. Hitzarmenak “VALLE DE LLANTENO” Kultura eta Arteko Elkarteari emango zaion urteko dirulaguntza arautzen du, marrazketa, pintura, zur-taila eta zeramika diziplinak garatzeko, irakasleen eta horiek emateko behar diren materialen kostua diruz laguntzeko.*

*III.- “VALLE DE LLANTENO” Kultura eta Arteko Elkartearen elkarte irekia da, bai Aiarako herritarrentzat, bai udalerriko elkarteentzat, eta bere helburua da kultura eta artea sustatzea eta gizartean erabiltzea.*



*IV.- Aplikatu beharreko legeria zehatz-mehatz beteta, eta toki-erakundeek lankidetzaz-hitzarmenak sinatzeko duten gaitasuna kontuan hartuta, bi aldeek lankidetzaz-hitzarmen hau gauzatzeko dute. Honako hauek bete beharko dituzte:*

### **HIZPAKETAK**

**LEHENENGOA.-** *Aiarako Udalaren aldetik hitzarmen honen xedea da kultura eta artea sustatzeko hainbat ekimen eta jardura sustatzea, "Valle de Llanteno" Kultura eta Arteko Elkartearekin elkarlanean eta koordinatuta, eta genero-ikuspegiarekin.*

*Horretarako, "VALLE DE LLANTENO" Kultura eta Arteko Elkarteak Aiarako udalerrian honako jarduketak hauetan lagundu behar du:*

- *San Prudentzioko jaietako azalen lehiaketan epaimahaia izango da.*
- *Epaimahai lanak egingo ditu Aiarako udalerrian egiten diren lehiaketa artistikoetan.*
- *Marrazketa, pintura, zeramika eta zur-lanketako kultur ikastaroak antolatu eta garatuko ditu.*

**BIGARRENA.-** *Aiarako Udalak garatu behar duen sustapen-jardueraren edukia da marrazketaren, pinturaren, zeramikaren eta zur-lanketaren diziplinetan genero-ikuspegiarekin "VALLE DE LLANTENO" Kultura eta Arteko Elkartearen urteko jarduerak dakartzan gastuetarako dirulaguntza ematea. Generoaren ikuspegiarako Udalak trebakuntza eta laguntza teknikoa emango du.*

**HIRUGARRENA.-** *Administrazio honek jardura sustatzeko emango duen dirulaguntza marrazketa, pintura, zeramika eta zur-taila diziplinen programa garatzeak dakartzan gastuak ordaintzeko izango da; zehazki, irakasleak kontratatzeak gastuak, bai eta aipatutako diziplinak emateko behar den materiala ere.*

*Irakasleak kontratatzeak gastuen eta behar bezala justifikatutako diziplinak emateko behar den materialaren arabera kalkulatu da dirulaguntza, eta elkarteak diziplina bakoitzeko ikasleen edo erabiltzaileen kuotengatik lortzen dituen diru-sarrerak deskontatuko dira, bai eta kontzeptu horietarako lortzen diren beste dirulaguntza batzuk ere, kontuan hartuta elkarteak ezin izango duela gainfinantzaziorik lortu aipatutako diziplinetan.*

*Hitzarmen honi dagokion dirulaguntza urtean gehienez ere BOST MILA EUROKOA (5.000,00 €) izango da.*

**LAUGARRENA.-** *Dirulaguntza emateko, gutxienez ZORTZI (8) pertsona joan beharko dute diziplina bakoitzean antolatutako ikastaro guztietarako (parte-hartzaile bakoitzak sinatutako zinpeko deklarazioaren bidez egiaztatu beharko da).*

*Ikastaroan parte hartzen dutenen artean baten bat Aiarako Udalean erroldatu gabe badago, dirulaguntzak udalerrian erroldatutako pertsonen zati proportzionala baino ez du hartuko.*



*Gainera, ezinbestekoa da elkarteak jarduerak finantzatzeko beste erakunde batzuei (Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzza, etab.) dirulaguntza guztiak eskatzea.*

**BOSGARRENA.-** Urteko udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO** honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) *Jaso dituen dirulaguntza publiko eta pribatu guztien aitortpena, baldin eta diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko badira. Halaber, diruz lagundutako diziplina bakoitzean izena emateagatik eskuratutako kuotak aitortuko dira.*
- b) *Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria. Hala eta guztiz ere, organo izapidegileak elkarrengarritasunaren bitartez zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriaren kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu eskatzaileek edo onuradunek kontra egiten ez badute. Aurka eginez gero, I. ERANSKINA BETE eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.*
- c) *Marrazketa, pintura, zeramika eta zur-lanketako ikastaroak irakastearen jarduerari buruzko honako dokumentazio hau:*
  - *Diruz lagundu den ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren balantzea (diru-sarreretan diziplina hauetarako erabiltzaileen kuotak eta beste erakunde publikoen eta zuzenbide pribatuko balizko dirulaguntzak sartuko dira).*
  - *Diruz lagundutako ekitaldiko jardueren memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko adierazpena). Memorian hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egingo da, eta partaidetzaren datuak sexuaren arabera banatuta emango dira.*
  - *Diruz lagundutako diziplinak irakastearen gaineko gastu guztien frogagiriak:*
    - *Irakasleak kontratatzeako gastuak: Nominen, Gizarte Segurantzaren kopia, ordainagiriekin batera, diziplinetarako kontratatu diren langileen TC-1 eta TC-2ren kopia, ordainsariak ordaindu izanaren frogagiria.*
    - *Materialaren gastuak: Materialaren gastu guztien justifikazio-fakturak, diziplinaren arabera behar bezala banatuta. Faturek egiteko eskatzen diren legezko baldintza guztiak izango dituzte. Transferentziaren bidez eginez gero ordainagiria erantsiko da edo dirutan ordaintzen bada, fakturan bertan azalduko da.*
- *Dirulaguntza luzatzea erabaki delako Udalak eskatuz gero, hurrengo urterako jardueretan eta funtzionamenduan urteko gastuaren aurreikuspena eta foruko dirulaguntzaren aurreikuspena, bidezkoa bada, urte horretarako beste balizko dirusarrera batzuekin batera. Helburua da hurrengo urteko dirulaguntza kalkulatzeko.*



- Hitzarmenaren xede den diziplina bakoitzean izena eman duten pertsonen partaidetzari buruzko zerrenda. Izena eta bi abizenak, NANA eta partaidetzaren sinadurak azalduko dira, bai eta pertsona horiekin harremanetan jartzeko telefono-zenbakia ere.

Lehenengo hizpaketako baldintzak betetzen ez badira, ez da dirulaguntza emango, eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.

Urtarriletik maiatzera edo urritik abendura bitartean diziplina bakoitzean errolatutakoen gutxieneko kopuruaren eskakizuna betetzen ez bada, dirulaguntza gutxituko da. Bete ez den hilabete horietan betetzen ez den diziplinako gastuen zati proportzionala (irakasleak eta materiala) kenduko zaio.

**2025eko urtarrilaren 31** baino lehen ez bada aurkeztu hitzarmen honen bosgarren hizpaketan estatutako justifikazioa, ez da dirulaguntza esleituko, eta hasiera emango zaio aurrez ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari.

Kultura- eta-kirol taldeen dirulaguntzak emateko ordenantza eta oinarri arauemaileen arabera, dirulaguntza hau bateragarria izango da Udalak urtero ematen dituen laguntzekin beste diziplina artistiko eta/edo jarduera batzuetako funtzionamendu-gastuetarako eskatzen badira bakarrik, betiere hitzarmen honen bitartez diruz laguntzen direnez kanpo.

**SEIGARRENA.-** Dirulaguntzaren xede diren jardueren egikaritze-epeak diruz lagundutako urtearen denbora-mugak beteko ditu, hain zuzen ere, 2024. urtea.

**ZAZPIGARRENA.-** Datuen babesa. AIARAKO UDALAK hitzarmen hau egiteko eta lortzeko erabiltzen dituen datu pertsonalak Administrazio Espedienteak izeneko tratamenduan sartuko dira, udal-jarduera orokorraren administrazio-kudeaketari buruzkoan. Arduraduna 01476 Arespalditzako (Araba) La Iglesia auzoko 3. zenbakian dago. Telefono-zenbakia: 945 39 90 13; helbide elektronikoa: [info@aiarakoudala.eus](mailto:info@aiarakoudala.eus); IFK: P0101100F. Nolanahi ere, datu pertsonalak laga ahal izango zaizkie erregistro publikoei, administrazio publikoko organoei, notarioei eta prokuradoreei, Estatuko segurantzako indar eta kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeei, aseguru-etxeei, osasun-erakundeei eta/edo auzitegi eta epaitegiei. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatze eskubidea du, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko eskubidea ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidaliko du korporazioaren helbidera, nortasuna egiaztatzen duen agiria erantsita, edo korporazioaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen izapide elektronikoa abiaraziko du. Datuak interesdunarengandik eta/edo haren ordezkariarengandik lortu dira, baita administrazio publikoetatik ere. Informazio gehiago lor daiteke webgunean: [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus); edo harremanetan jarriz telefono-zenbakira deituz: 945 39 90 13.

**ZORTZIGARRENA.-** Dirulaguntza ordaintzeko modua honako hau da: Aiarako Udalak ezarritako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena sinatzean. Gainerako % 20a behin hitzarmenaren BOSGARREN klausulan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.



*Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahalko du horri buruz egokitzat jotzen duen informazioa.*

**BEDERATZIGARRENA.-** “VALLE DE LLANTENO” Kultura eta Arteko Elkarteak publizitate guztian Aiarako Udalaren laguntza eta babesletza adieraziko du, eta hizkera eta irudi ez-sexistak erabiliko ditu.

**HAMARGARRENA.-** "VALLE DE LLANTENO" Kultura eta Arteko Elkarteak hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak urratzen baditu, dirulaguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-erregimena aplikatuko da.

*Eta adostutakoarekin ados daudela adierazteko, aldeek lankidetzeta-hitzarmen honen bi aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo zirriborrorik gabe, dokumentu hau osatzen duten 5 orrialdeetako bakoitzean, eta konpromisoa hartu dute goiburuan ageri den lekuan eta egunean hitzarmena betetzeko.*

ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Stua.: Prudencio Otegui Echevarría

Stua.: Naiara Lazpita Marcos.

VALLE DE LLANTENO ARTE ELKARTEKO PRESIDENTEA,

Stua.: Luis Padura Elorza jn.

*Alkateak eta idazkari kontu-hartzaileak elektronikoki sinatutako dokumentua.*

## **I. ERANSKINA**

**Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak. EGIAZTA DAITEZKEEN DATUAK. AURKA EGITEA.**

*Udal honek datu eskuragarrien bitartekaritza-sistemen bitartez kontsulta eta egiaztapen egokiak egingo ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izateari buruzko ziurtagiriaren gainean, sinatzen duenak aurka egiten ez badu. Aurka eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, laugarren klausulan aipatzen diren gainerako frogagiriekin batera.*

**Egiaztapen horren aurka egonez gero, jar ezazu X bat:**

- Udalak Ogasunaren (AFA) ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.
- Aurka egiten diot Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriari buruzko kontsulta egiteari.





Aurka egitearen justifikazioa

*Aurka eginez gero, beharrezkoa da aurka egiteko arrazoiak justifikatzea (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua).*

---

---

---

---

*Data:* \_\_\_\_\_

*Elkartea:* \_\_\_\_\_

*Ordez kariaren izena:* \_\_\_\_\_

*Stua.:* \_\_\_\_\_

*Izaera pertsonaleko datuen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean egindako eginkizun bat betetzean edo Aiarako Udalarari emandako botere publikoak erabiltzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EBko Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan eta gainerako legeria aplikagarrian aurreikusitako baldintzetan.*

**Bigarrena.--** Alkate-udalburuari ahalmena ematea aipatutako Hitzarmena sinatzeko.

**Hirugarrena.--** Akordioa Valle de Llanteno Arte Eskola elkarteari jakinaraztea, dagokion hitzarmena sina dezan.

**12.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Sailari atxikita Dagoen Gizarte Ongizaterako Foru Institutua erakunde autonomoaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren proposamena, oinarritzko gizarte-zerbitzuak emateko.**

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, alkateak edo udalburuak, behar bezala arrazoitutako presazko arrazoiak direla medio, dagokion Informazio Batzordeak aldeztetik jakinarazi ez dituen gaiak sartu ahal izango dituela gainerendian, baina kasu horretan ezin izango da gai horiei buruzko inolako erabakirik hartu Osoko Bilkurak gainerendian sartzea berretsi ezean.



Udalbatza jakinaren gainean geratu da. Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da; aho batez onetsi du puntu hau bilkura honetako gai-zerrendan sartzea.

Arabako Foru Aldundiak Udal honi Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailaren eta Aiarako Udalaren artean eginiko lankidetzeta-hitzarmenaren proposamenaren berri jaso da.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza aipatzeko gauzak berriz ere aldatu direla. Aurreko legealdian hitzarmen hori bera osoko bilkuran aurkezten zenean, EH BILDU beti abstenitzen zen, eta orain alde bozkatuko du. Gaineratu duenez, aurreko legealdian hala izan da, aktetan egiaztatu baitu, eta berriz ere ikus daiteke nola jarrera ezberdina den oposizioan edo gobernu-taldean daudenean. Hau horren beste adibide bat da.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz adierazi du haiek beti diotela zerbitzuek Udalean egon behar dutela, eta ez Gasteizen, baina egikaritzeko finantzaketarik ez dagoenez, derrigorrez onartu behar dute.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta adierazi du ez duela ulertzen kasu honetan zein den Gasteizen dagoen zerbitzua, hitzarmena gizarte laguntzailerako baita, eta hori udal-langilea da. Eta gainera, ez du ulertzen zer aldatu den aurreko legealditik botoaren zentzua aldatzeko, egoera eta hitzarmena berdinak baitira. Eta galdetu du ea Aldundiarekin kudeaketarik egin den finantzaketarik datorren ikusteko, Udalean zerbitzu horiek kudeatzen hasteko, hori bada gobernu-taldeak nahi duena.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) euskaraz erantzun dio aurreko legealdiko bilkuretako aktak begiratu dituztela. Gaineratu du jada adierazi zutela Udalak gizarte zerbitzuak egiteko finantzaketarik ez badagoela ezingo direla gastu horiek hartu, eta hori da Udal honek eskatzen duen bakarra; argi dago ez dutela emango.

Ez da horri buruzko iruzkin gehiagorik egin eta gaia bozkatu da, zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmen bat sinatzeko beharra, oinarrizko gizarte zerbitzuak garatu eta jarraitze aldera lankidetzeta-tresna bat zehazteko.

**IKUSI DA.-** Araiako Udalaren eskumeneko oinarrizko gizarte zerbitzuak emateko lankidetzaren esparruan Aiara eta Okondo udalerrietako biztanleei ematen zaie arreta.

**IKUSI DA.-** Arabako Foru Aldundiak Udal honi. 2024. urterako Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmenaren eredia bidali dio, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak ematekoarena.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:



**Lehenengoa.--** Onestea Arabako Foru Aldundiak Udal honi 2024 urterako bidalitako Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzahitzarmenaren bidalitako erdua, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak ematekoarena. Hitzez hitz honela dio:



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava



**Aiarako Udala**  
Ayuntamiento de Ayala

**ARABAKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE ZERBITZUETAKO SAILAREN ETA AIARAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK EMATEKO.**

*Vitoria-Gasteizen, 2024ko apirilaren 23an*

*Alde batetik, Gorka Urtaran Agirre jn., Gizarte Politiketako foru-diputatua, Arabako Foru Aldundiaren izenean eta bere ordezkari jarduten duena, 2023-2027 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren foru diputatuak izendatzeko diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 153/2023 Foru Dekretuaren bidez izendatua, eta Arabako Foru Aldundiaren gobernari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren bidez emandako eskumenen bidez.*

*Beste aldetik, Prudencio Otegui Echevarría, Aiarako Udaleko alkate-udalburua.*

*Bi aldeek beren karguei dagozkien atribuzioak eta eskumenak erabiliz, agiri hau sinatzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, horretarako*

**ADIERAZTEN DUTE**

**Lehenengoa.-** *Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, ongizate estatuaren ardatzak, botere publikoen eskakizunak arautzen ditu eskubidearen titular guztiei gizarte prestazioak eta zerbitzuak eskura izan eta lortzeko eskubidea bermatze aldera, lege horretan bertan eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan zehazten diren baldintzetan. Horretarako, Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapari erreparatuko zaio, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren esparruan Arabako Foru Aldundiak eta lurralde historikoko udalek 2016ko uztailaren 22an baietsi ondoren.*

**Bigarrena.-** *Lege horren 29. artikulua arabera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua udaletako gizarte zerbitzuetan arreta integratuko unitate polibalente eta diziplina anitzekoa da, biztanleriak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako sarbidea izateko lehenengo puntu gisa balio duena. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren funtzio nagusia izango da lurraldeko jarduketan esparruaren barruan, gizarte zerbitzuen esparruan artatu daitezkeen behar sozialak hauteman eta horiei arreta ematea, eraginezko eremu geografikoaren baitan Gizarte Zerbitzuen Euskal*



*Sistemaren auzialdietarako sarbidea koordinatu eta kudeatuz, eta adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiek Oinarrizko Gizarte Zerbitzua izan beharko dutela, beren kabuz nahiz elkartuta.*

*Hirugarrena.-- Aurrekoarekin bat, Aiarako Udalak Oinarrizko Gizarte Zerbitzua du.*

*Laugarrena.-- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 31. artikulua aipatutakoaren ildotik, aldundiek lurralde guztian udal-eskumeneko zerbitzuen prestazio osoa eta egokia ziurtatu behar dute, eta testu bereko 36. artikuluekin bat etorritik, aldundiek, besteak beste, ikuspegi juridiko, ekonomiko eta tekniko udal-zerbitzu horietan lagundu eta elkarlanean jardun behar dute.*

*Bosgarrena.-- Arabako Lurralde Historikoko 2023ko Aurrekontu Orokorretan, 2024rako luzatutakoetan, Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorren arabera, honako partida hau gehitu zen: 81201.G/231811/46290814 "Aiarako Udala: Oinarrizko Gizarte Zerbitzua", 54.610,00 euroko zuzkidurarekin eta izendun gisa sailkatua (3.2.5).*

*Seigarrena.-- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak xedatzen du bere printzipio orokorren artean erantzukizun publikoa eta aipatzen du botere publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan araututako prestazioak eta zerbitzuak eskuratu eta lortzea bermatu beharko dutela, elkarren arteko koordinazio- eta kooperazio-printzipio orokorarekin batera.*

*Zazpigarrena.-- Alde biak ados daude 2024 ekitaldian zehar programa horren garapen eta jarraipenerako baliabide egoki gisa lankidetzatresna ezartzearekin, baita hori gauzatu behar diren baldintzekin; hortaz, hitzarmen hau sinatzea adostu dute, honako hauen bidez arautuko dena:*

## **KLAUSULAK**

*Lehenengoa.-- Hitzarmen honen xedea da Aiara eta Okondo udalerrietako herritarren arretarako Aiarako Udalaren eskumeneko oinarrizko gizarte-zerbitzuak emateko lankidetzatresparrua zehaztea.*

*Bigarrena. Oinarrizko Gizarte Zerbitzua udaletako gizarte zerbitzuetan arreta integratuko unitate polibalente eta diziplina anitzekoa da, eta xede nagusi du jarduketa komunitarioa garatzea, pertsonen Gizarte Zerbitzuen Sistema osorako sarbidea ahalbidetu, koordinatu eta kudeatuz, eta autonomia, gizarte-inklusio eta premiazko edo babesgabetasun sozialeko egoerekin lotutako beharrak artatuz, arreta berezia jarritz mugaren baitan arrisku-egoerak prebenitzean. Honako hauek dira zerbitzuaren funtzioak:*

*a) Pertsonen eta familien honako hauen berri ematea:*

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazioak: zer behar eta egoerei erantzuteko diren; hartzaileak; lortzeko eskakizunak eta prozedurak; bidezkoa bada,*



*aplikatzen den prezio publikoa; ematen duten arretaren intentsitatea; prestazio eta zerbitzu desberdinak konbinatzeko aukera; etab.*

- *Euren eskubideak eta betebeharrak. Bereziki azpimarratzen da beharren balorazioa izateko eskubidea, eta, egokia bada, gizarte-diagnostiko eta arreta-plan pertsonalizatua (APP) edo banako arreta-plana (BAP) izateko eskubidea.*
- *Prestazio eta zerbitzu bakoitzak tartean sartutako pertsona bakoitzari ekartze dizkioten kostu eta onurak, ez bakarrik arlo ekonomikoan; baita denbora, osasun eta lanaren gehiegizko kargaren esparruan ere.*
- *Eskaeraren bilakaera eta egoera.*

*b) Pertsonaren eta bere testuinguruaren behar eta gaitasunen hasierako balioespena egitea, eta, ebaluazio horretan oinarrituta irizten bada beharrezkoa izan litekeela jarraipena behar duen esku-hartzea egitea ,hasierako diagnostiko soziala egitea. Horretarako, ahal den guztian, pertsona eta familia interesdunen eta beren laguntza-sarearen parte-hartzea izango da.*

*c) Pertsona edo pertsonak bideratzea prestazio ekonomiko eta/edo zerbitzu egokienetara, edo, egokia bada, prestazioen eta zerbitzuen arteko konbinazio egokienera, bere beharrianak asetzeko eta/edo, bidezkoa bada, beste arreta-sistema edo -politika batzuetako baliabideetara.*

*d) Diagnostikoak hala gomendatzen badu, kasuaren erreferentziatzko profesional gisa jardutea, interesdun eta/edo familia erabiltzailearen partaidetzarekin, APPa egiteko, eta gerora kudeatzea, ukitutako beste sistema eta eragile batzuekin koordinatuta. APPak edo BAPak aurreikusitako jarduketak abian jarriko ditu, eta aldizka jarraitu eta ebaluatuko ditu. Hori guztia egingo da, indarreko legediaren arabera, kasuaren erantzukizuna beste erreferentziatzko profesional bati pasatzen ez zaionean.*

*e) Euskal Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen multzorako sarbidea eratzeke izapidetze-, kudeaketa- eta koordinazio-funtzioak betetzea.*

*f) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak arreta emateko eta babesteko eskatzen duten herritarren gizarte-beharrak antzematea eta jarduketak hastea, bai eta, bidezkoa bada, beste arreta-sistema batzuetara bideratzea ere.*

*g) Eskatutako lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen hornidura-funtzioak betetzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 19. artikuluan araututako esku-hartzeen oinarritzko prozedura aplikatzen dela bermatuz dagokion jarduera-esparruan, eta aplikatu behar zaien foru-araudian ezarritako funtzioetan lagunduz.*

*Era berean, oinarritzko gizarte zerbitzuak honako funtzio hauek gauzatuko ditu:*

- a) *Gizarte-beharrak asetzean ager daitezkeen disfuntzioak edo urritasunak antzematea.*
- b) *Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioaren Euskal Sistemaren esparruan homogeneizazio- eta sistematizazio-irizpideekin informazioa egitea.*



c) *Gauza dezakeen antzeko beste edozein funtzio, baldin eta berariaz esleitzen bazaio.*

*Hirugarrena.- Zerbitzua ezartzeko, behar bezala garatzeko eta helburuak betetzeko, alde sinatzaileek honako konpromiso hauek hartzen dituzte:*

*Aiarako Udalak*

- *Gizarte Politiketako Sailarekin lankidetzan jardutea oinarrizko gizarte-zerbitzuak koordinatzeko eginkizunean eta unitate horien nahiz Gizarte Ongizaterako Foru Elkartearen arteko komunikazio egokia sustatzea.*
- *Zerbitzuen funtzionamenduari buruzko eskatutako datu guztiak ematea.*
- *Foruko zerbitzuetan eta programetan parte hartzea, eremua garapen-esparrua bada.*
- *Zerbitzu bakoitza fisikoki egongo diren lokalak lagatzera.*
- *Egiazko kostuaren eta Foru Administrazioak finantzatzen duenaren arteko aldea kontuan hartuta, oinarrizko gizarte-zerbitzuak finantzatzen laguntzea.*

*Aldundiaren Gizarte Politiketako Sailak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea organismo autonomoaren bidez*

- *Oinarrizko gizarte-zerbitzuari informazioa, laguntza teknikoa eta aholkularitza ematea, behar bezala funtziona dezan.*
- *Oinarrizko gizarte-zerbitzuen unitateetako langileak Gizarte Politiketako Sailaren trebakuntza- eta birziklatze-planetan txertatzea.*
- *Lanaldi osorako Gizarte Lanean diploma duen profesional bat finantzatzen laguntzea.*

*Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak goian aipatutako langilearen egiazko ordainsari-kostuaren % 80 finantzatzen parte hartuko du. Kostu horren barruan sartuko dira ordainsari gordina, antzinasuna eta gizarte-kostuak, baina 2024 ekitaldirako kontzeptu bakoitzeko ordainsari-kostuen gehienekoa ipiniko da eta, xede horrez, aintzat hartuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean lanbide-kategoria bera duen teknikaria. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean antzeko funtzionario-profilik ez badago, Arabako Foru Aldundian lanbide-kategoria horri dagokion oinarrizko maila kontuan hartuko da. Era berean, benetako joan-etorrien gastuak finantzatzen lagunduko da, gehienez, 1.694,13 eurora arte eta kilometro bakoitzeko 0,29 eurora arte.*

*Laugarrena.- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak Aiarako Udalari ordaindu behar dion finantzaketa osoaren gehiegizko zenbatekoa zehazteko, honela banakatu da gastuen kontzeptu bakoitzeko soldata-kosturako gehieneko muga:*

*Gizarte Lanean diploma duen langilea:*





## Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

- *Ordainsari gordina* 48.191,53 €/urte
- *Antzinatasuna* 755,64 €/urte/hirurteko
- *Gizarte-kostuak:*
  - *Gizarte Segurantza (kontratu-motaren arabera kalkulatu da)*
  - *Elkarkidetza* 1.317,82 €/urte

*Gehieneko zenbateko horiek behin Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta Arabako Foru Aldundiak 2024rako enplegatu publikoen ordainsarien gehikuntza onetsita eta egiaztatuta eguneratze horrek diruz lagundu behar den zenbatekoa areagotzen duela eguneratu ahal izateari kalterik egin gabe.*

*Hitzarmenak irauten duen bitartean ordainsarien aldaketen ondorioz balizko aldaketa gorabehera, aurreko zenbatekoei eta Aiarako Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuko langilearen egiazko kostuei erreparatuta, Arabako Foru Aldundiak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez, Aiarako Udalari 54.610,00 euro ordainduko dizkio gehienez 2023 ekitaldiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko aurrekontuaren 81201.G/231811/4629014 partidaren kargura (Aiarako Udala: Oinarrizko Gizarte Zerbitzua). Aiarako Udalaren esku geldituko da kostu guztiaren % 100 ordaintzeko gainerako finantzaketa.*

*Bosgarrena.- Gizarte Politiketako Sailak Aiarako Udalari egindako ekarpena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bitartez ordainduko da aurreko hiruhilekoetan, azkeneko hiruhilekoan izan ezik. Orduan, % 70 ordainduko da, eta gainerakoa azken likidazioa egin ondoren.*

*Hitzarmen hau sinatu eta hurrengo 15 egunen buruan, bidezkoak diren zenbatekoak erregularizatzeari ekingo zaio.*

*Aiarako Udalak, beranduenez 2025eko urtarrilaren 31n, honako justifikazio-dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:*

- *Organo eskudunaren ziurtagiria (idazkaria, kontu-hartzailea, diruzaina), langilearen gastuei buruzko zerrendarekin ordainsari-kontzeptuen arabera banatuta, bai eta Gizarte Segurantzaren enpresaren kostua ere, eta horien guztien ordainketak.*
- *Hileko kilometroen gastuei buruzko egoera-orria daten arabera banatuta (kilometroak nominan ordainduko dira).*
- *Erregistro Elektronikoaren bidez aurkeztutako edozein dokumentazio edo frogagirirekin batera organo eskudunaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da (Idazkaritza, Kontu-hartzailetza, Diruzaintza). Bertan adieraziko da aurkeztutako dokumentazio guztia erakundearen eskuetan dauden jatorrizko dokumentuen irudi zintzoa direla, eta horiek GOFBren eskura jarriko direla berak eskatu ostean.*

*Seigarrena.- Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean izango ditu ondoreak.*



Zazpigarrena.- Hitzarmen hau xedea osatzen duten jarduketak betetzean edo suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean azkenduko da, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.1. artikulua xedatutakoaren arabera.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hauek izango dira hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

- a) a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.
- b) Sinatzaile guztien aho bateko erabakia.
- c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.
- d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratu den erabaki judiziala.
- e) Aurrekoekin zerikusirik ez duen edozein arrazoi, baldin eta hitzarmenak edo bestelako legeak aurreikusten badute.

Hitzarmena bete eta azkenduz gero, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52. artikuluan xedatutako ondoreak izango ditu.

Zortzigarrena.- Bi aldeek aitortzen dute Datu pertsonalak tratatu eta datuak aske zirkulatzeari dagokionez pertsona fisikoak babesten dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (datuak babesteko erregelamendu orokorra) indargabetzen duen 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduaren xedapenak eta datuak babestearen arloan aplikazioko gainerako araudia ezagutzen dituztela eta hitzarmen honetan nahasita dauden pertsona fisikoetatik eskuratzen dituzten datuei dagokienez horietan xedatutakoa betetzeko konpromisoa hartzen dutela.

Bederatzigarrena.- Bi aldeek aitortzen dute Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoaren, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko Legegintzako 1/2023 Dekretuaren eta 2022ko abenduaren 27an onetsitako Arabako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 2022-2026 aldirako V. Foru Planaren xedapenak ezagutzen dituztela, eta genero-ikuspegia integratzeko neurriak ezartzeko konpromisoa hartzen dute, eta, zehazki, hizkeraren erabilera ez-sexista egin eta datuak sexuaren arabera bildu eta aurkezteko.

Hamargarrena.- Aiarako Udalak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede denaren gainean egindako publizitate guztian Arabako Foru Aldundiaren lankidetzara idatziz jasoa uzteko.

Komunikazio-, publizitate- eta propaganda-ekintza guztiek hitzarmen honen xedearekin lotura badute, aurretiaz Arabako Foru Aldundiaren baimena eskuratu beharko dute, eta korporazioaren irudiari dagokionez, Aldundiak berak emandako adierazpenak beteko dituzte. Era berean, edozein egintza publiko edo pribatu, aurkezpen, sari-emate, klausura eta antzekoren bat antolatuz gero, egunak, ordutegiak, ekitaldiaren garapena, gonbidatuak, etab. deialdia egin baino lehenago adostuko dira, eta Aldundiak onetsi beharko ditu. Nolanahi ere, ekitaldi hauetan presidentetza eta presentzia aktiboa beren-beregi hitzarmenaren sinatzaileei gordeko zaie, eta AFAko Protokoloa eta Harreman Publikoetako zerbitzuak arautuko du.



# Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Hamaikagarrena.- Hitzarmen hau aplikatu behar diren administrazio-zuzenbideko arauen, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren eta orokorrean aplikatu behar diren gainerako xedapenen mende dago.

Azaldutako guztiarekin ados daudela frogatzeko, alde biek dokumentu hau sinatu dute, modu elektronikoa, sinadura-data gisa goiburuan adierazitako eguna hartuz.



**Gorka Urtaran Agirre**

Diputado Foral de Políticas Sociales y  
Presidente del Consejo de Administración del  
Instituto Foral de Bienestar Social

**Prudencio Otegui Echevarría**  
Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Ayala

”.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena gauzatu dadin beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko.

Hirugarrena.- Hitzarmenaren kopia Arabako Foru Aldundiari bidaltzea, alkate-udalburuak behar bezala sinatu ondoren, erakundeak ezagutu dezan eta ondoreak izan ditzan.

### **13.- Alkatetzaren Dekretuen berri ematea (2024/191 eta 2024/280 zenbakien arteko Alkatetzaren Dekretuen zerrenda erantsi da, biak barne).**

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2024/191 eta 2024/280 bitarteko Alkatetzaren Dekretuak, bi horiek barne. Horien edukia, laburki, honako hau da:

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/191.- L.C.D.- Aparkatzeko txartela berritzea, narriatu delako.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/192.- “San Prudentzio Jaiak 2024”rako aldizkariak.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/193.- I.O.I.- Dokumentazio gehigarria eskatzea eskatutako udalaren obra-lizentzia izapidetzeko.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/194.-EDP Clientes SAU. Gas-horniduragatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/195.- B motako arma-txartelean arma inskribatzea. Manuel Domínguez Seoane.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/196.- Acciona Green Energy Dev. SLU. Energia-horniduragatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/197.- Goiener, S.Coop. Energia-horniduragatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/198.- Etxaurren Ikastolako guraso-elkartea.- Talde psikopedagogikoaren eta bi urteko gelako laguntzailearen nominak ordaintzea, 2024ko martxoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/199.-Alday Fundazioa. Eguneko Arretarako Landa Zentroetako kudeaketa-gastuetarako dirulaguntza ordaintzea, 2024ko martxoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/200.- JM.U.L.- Hirigintza leheneratzeko espedienteak hastea, Izoriako 5. poligonoko 536 zenbakidun partzelan dauden eraikinetako jarduerengatik, eta eraikin nagusiaren alboko ataripea erortzeko zorian egoteagatiko espedienteak hastea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/201.- J.M.H.P.- Biztanleen erroldako ofizioko baja, bidegabeko izen-emateagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/202.- Alkatetzak espedienteak onestea, kreditu gehigarriari buruzkoa, 4/2024 zenbakia.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/203.- A.P.V.- Hirigintza leheneratzeko espedientearen hasierari alegazioak aurkezteko emandako epea luzatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/204.- Ibilgailuen Udal Zergaren 2024ko errolda onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/205.- Luiaondoko kirol-pista erabiltzeko baimena ematea, hauteskunde-kanpainako ekitaldi baterako.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/206.- EAeko udal-kiroldegietako kideen kuotako ordaintzeko laguntzak emateko 2024rako deialdia eta oinarriak onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/207.- L.P.L.- G.Z.A.ren izenean hirigintza leheneratzeko espedienteari alegazioak aurkezteko epea luzatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/208.- Total Energies Clientes SAU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2024.

ALKATETZA DEKRETUA – 2024/209 Baser Comercializadora de Ref. SA. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/210.-Orange Espagne SAU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/211.- Kultura, Kirol eta Gizarte arloetako 2024ko dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/212.- I.L.I.-Murgan okingintzako lantegirako



jardueraren aurretiazko komunikazioaren berri ez jasotzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/213.- Arabako Foru Aldundia – Ondare historiko-arkitektonikoaren zerbitzua.- Kexaako eraikineko egitura, estalkia eta fatxada sendotzeko eskatutako udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatu zitzaion.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/214. Euskal Fundoa.- Kideen 2024ko kuota ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/215.- Elkarkidetza Pentsioak.- 2024ko apirilko faktura-likidazioa onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/216.- Aiarako Kuadrilla.- Gastu orokorrak eta beste batzuk erregularizatzeko 1/2024 ekarpen ekonomikoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/217.- Aiarako Kuadrilla. 2023ko lurralde-planen ekarpen ekonomikoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/218.- Alkateak kreditua gaitzeko espedientea onestea, 1/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/219.- 2023-2024ko atzeratutako nominen ordainketa likidoa onestea, langileak eta alkatea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/220.- 2023ko urtarriletik 2024ko martxora arteko ordainsarien gehikuntzaren atzerapenen nominak ordaintzea, EEP.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/221.- Axpo Iberica SL. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/222.- MV.A.U.- Lantenoko eraikineko lehengo solairua egokitzeko obrak legezatztea (bigarren fasea).

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/223.-I.M.A.- AFAko Ondare arkitektoniko-historikoaren zerbitzuan aurkeztutako dokumentazioa helaraztea eta eskatutako obra-lizentzia eman aurreko txosten berria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/224.-Luiaondoko Padura kaleko 35 zenbakiko jabeen erkidegoa.- Obra-amaierako lizentzia emateko eta igogailua instalatzeko obra-hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzeko dokumentazio gehigarria eskatu zitzaion.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/225.- L.A.N.- Murgako etxebizitzan portxean beiradun itxitura jartzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/226.- Menagarai-Beotegiko administrazio-batzarra.- Menagaraitik Kexaara El Fontarrón bidea egokitzeko udalaren obra-lizentzia izapidetzeko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/227.- Erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea, F/2024/3.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/228.- P.M.L. eta W.E.T.- Dokumentazio gehigarria eskatzea eta Arabako Foru Aldundiaren Ondare historiko-arkitektonikoaren zerbitzuaren aurretiazko txostena eskatzea, birgaitze-obrak egiteko eta erabilera etxebizitzarenera aldatzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/229.- ETORKI, S. COOP. - Udal-biltzailearekin konektatzen duen euri-uren harguneari baimena ematea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/230.-J.B.Z.- Dokumentazio gehigarria eskatzea udalaren obra-lizentzia izapidetzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/231.- Arabako Foru Aldundiari Idazkaritza Kontu-hartzaitzako lanpostua betetzeko estaturako gaikuntza duen toki-administrazioko funtzionarioa izendatzea proposatzeko prozedura hastea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/232.- Aiara Industrial Lab.- Informazio publikorako sarbidea.- Aiara udalerriko industria-enpresei buruzko informazioaren eskaera.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/233 – TALDESPORTen adjudikazioa.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/234.- M.T.M.G. 2024ko TMIZean hobaria ematea, minusbaliotasuna egiaztatzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/235 – REMOLQUES RALNERren adjudikazioa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/236.- 2023ko euskara ikasi eta hobetzeko laguntzak emateko deialdia eta oinarriak onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/237 – ELDER MEDIO AMBIENTE VITORIA SLren adjudikazioa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/238 .- Itzulketaren espedientea - Aiarako Biltokia Kultural Elkartea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/239 – Itzulketaren espedientea – Valle de Llanteno Kultura eta arteko elkartea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/240.- 2024ko apirilko nominen ordainketa likidoa onestea, langileak eta alkatea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/241.- EEPko langileen kontratazioko 2024ko apirilko ordainsariak ordaintzea, 2023/24.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/242.- M.P.G.- Eskatutako hirigintza-txostena bidaltzea eta Erretes Lantenoko 1. poligonoko 823. zenbakidun partzelan obrak egiteagatiko hirigintza leheneratzeko espedientea hastea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/243.- A.I.G.- Erretes Lantenon horma berreraikitzeke obrak egiteko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/244.- MM.S.I.- Erretes Lantenon horma berreraikitzeke obrak egiteko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/245.- JR.G.M.- Laguntza eskatzea, Arespalditzako 5. poligonoko 160 zenbakiko partzelan hirigintza-ikuskaritzako bisita egiteko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/246.- Energía XXI Comercializadora SL. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/247.- Endesa Energía SAU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/248.- Udalkideei ekarpen ekonomikoa egitea, 2024ko apirila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/249.- Udalerriko talde politikoei egindako ekarpen ekonomikoa, 2024ko apirila.





ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/250.-TG. Gizarte Segurantza.- Langileen, alkatearen eta enpresaren kotizazioa ordaintzea, 2024ko martxoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/251.-AFari PFEZaren 1/2024 atxikipena onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/252.- JL.B.G.- Izoriako etxebizitzan instalazio fotovoltaikoak jartzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/253.- Totalenergias Electricidad y Gas SA. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/254.- PHB-C.C.P.- Dokumentazioa eskatzea Menagaraiko eraikinean estalkian teilak berriz jartzeko udalaren obra-lizentzia izapidetzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/255.- E.A.G.- 2024ko TMIZerako hobaria.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/256.- ME.M.M.- Aiarako 2. poligonoko 962 zenbakidun partzelan etendako jardueragatik hasitako hirigintza leheneratzeko espedientea ebaztea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/257.- JM.U.L.- Aurri-espedientea eta hirigintza leheneratzeko espedienteak hasteko Alkatetzaren 2024/200 Dekretuari alegazioak aurkezteko epea luzatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/258.- U.M.A.- Luiaondoko etxebizitza lehen erabilerako behin betiko lizentziarik gabe erabiltzeagatik hasitako hirigintza leheneratzeko espedientea ebaztea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/259.- Arabako Foru Aldundiari eskatzea Aiarako Udaleko Idazkaritza Kontu-hartzailatza lanpostua sartzeko estaturako gaikuntza duten langileentzat gordetako lanpostu hutsen hurrengo ohiko lehiaketarako deialdian.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/260.- DITECO INGENIERIA SL-- Murgako industrialdean baskula eraikitzeo obrarako aurkeztutako proiektuari gehigarria aurkezteko errekerimendua egitea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/261.- JI.U.M.- Arespalditzan jabari publikoko lurzoruan partzela itxi eta sarbidea jartzeko obren ondorioz hasitako hirigintza leheneratzeko espedientea ebaztea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/262.- Olabazarreko baserrian segurtasunerako gutxienerako obrak egikaritzea agintzea, 2024/169 Dekretu bidez eginiko esku-hartze proposamena aldatuz.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/263.- D.M.C.- Ebin zaldientzako korralea eraikitzeo obren hondakinak ondo kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/264 - Belako Lanak SLU. Lehenengo luzapenaren erabakia.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/265.- Regsiti Comercializadora Eg SLU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/266.- Repsol Comercializadora de Electricidad y Gas. Elektrizitate horniduragatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2024.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/267.- Repsol Comercializadora de Electricidad y Gas. Gas-horniduragatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2024.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/268.-N.N.E.- Luiaondoko etxebizitzan arotzeria ordeztu eta komuna berritzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/269.-Alday Ongintzako Fundazioa.- Arespalditzako egoitza handitzeko obraren EIOZaren likidazioari buruz jarritako errekurtsioa ebazte aldera dokumentazioa aurkezteko eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/270 – Adjudikazioa Talleres Mecánicos Ganzedori – Soropila mozteko traktorea hornitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/271 – Adjudikazioa Aiaraldea Koop. Elkarteari – Sare sozialak sortu eta kudeatzeko zerbitzua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/272.- L.A.G.- Dokumentazio gehigarria eskatzea, Maroñoko etxebizitzako estalkia konpontzeko udalaren obra-lizentzia emateko.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/273.- Ríos Renovables SLU.- Eskatutako hirigintza-bateragarritasunaren txostenaren eskaerari uko egin izana onartzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/274.- J.C.B.- Murgako negutegian kalamu industrialeko laborearen jarduera egiteko aurkezteko Sailkatutako Jarduerarako aurretiazko jakinarazpenari uko egin izan a onartzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/275.- F.A.O.- Alkatetzaren 2024/95 Dekretuaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsioa gaitzestea.-

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/276.- Telefónica de España SA.-Dokumentazio gehigarria eskatzea Menoion 5G zuntza kanalizatzeko eskatutako udalaren obra-lizentzia izapidetzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/277.- Telefónica de España SAU.- Dokumentazio gehigarria eskatzea Añes-Erretes Llantenenon 5G zuntza kanalizatzeko eskatutako udalaren obra-lizentzia izapidetzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/278.- Obra-lizentzia ezeztea (II. fasea), hirigintza leheneratzeko espedientea hastea eta zehapen-espedientea hastea, Aiarako Arau Subsidiarioetan udal-babeseko hormak eraisteagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/279.- E.A.M E/R JM.E.G.- Dokumentazio gehigarria eskatzea eskatutako udalaren obra-lizentzia izapidetzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/280 – BilboLuxen adjudikazioa.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta 278. dekretuari buruz galdetu du.

Idazkariak dekretua bilatu du eta espedientea zertan datzan azaldu dio.

#### **14.- Galde-eskeak**

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz aipatu du bilera egin dela Solariaren proiektua zertan datzan azaltzeko. Alegazioak aurkezteko epea luzatzeko eskatu da eta aholkularitza enkargatu da horiek idazteko, eta aurkeztuko dira.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eskatzeko haiei ere Administrazio-batzarretan horri buruz jorratutakoa helarazteko.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) berriz hartu du hitza eta euskaraz adierazi du dirulaguntza eman dela eraikin pribatuetan amiantoaren katalogoa egiteko, eta aurrekontuan horretarako partida sartuko dela. Ingurumen teknikariak azalduko du hurrengo batzarrean.
- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko haserre dagoela, Udalaren sarrera-erregistroan ikusi duelako Arespalditzako Administrazio-batzarrak gonbidapena luzatu ziola udalbatza osoari, San Isidroko jaietara bertaratzeko. Gaineratu du haiek ere udalbatzako kideak direla eta ez zaiela gonbidapen hori helarazi.
- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza adierazteko Erretes Llantenoko arau-hausteagatik izapidetzen ari den zehapen-espedienteari dagokionez, arkitektoak adierazi diela Aiara Batuzeko zinegotziak adierazi duela haiek gobernuak egonez gero, arau-haustea beste kategoria batean sailkatuko luketela.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) gaineratu du Karmele Población Martínez zinegotzi andreak aurreko osoko bilkuraren batean horri buruz azaldu zuela senidea udaletxera joan zela erreklamatur zehapena oso altua zela, eta oso astun gisa ordez astun gisa sailkatu ahalko zitekeela. Eta hark azaldu zuen aholkularitza juridikoak esan ziela oso astun gisa sailkatu zela zehapen ekonomikoa txikiagoa izan zedin, zehapenen mailaketaren kontu bat dela eta. Horri lotuta, Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) gaineratu du Aiara Batuzeko zinegotziaren iruzkinak oso mingarriak direla, alkatetzako burua izatearen alderdi gogorrenetako bat ezetz esatea eta zehapen-espedienteak hastea delako. Baina kasu horretan, Udalak egin behar zuena egin zuen. Asmoa izan zen arazoa minimizatzea, eta espedientea sakon aztertu zen, eta Karmelek aipatutako osoko bilkuran adierazitako ondorioa heldu ziren, zerbitzu juridikoek adierazi zutenera. Horregatik, gaineratu du Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV), oso mingarria dela aurreko legealdiaren jarduketa zalantzan jartzea, iradokiz familia horren egoera are gehiago okertu zela, errealitatean aurkakoa egiten saiatu zirenean.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) ehiza-barrutiaren espedienteari buruz adierazi du aurreko legealdian kritika asko egin zirela baldintza ekonomikoak aldatu zirenean, eta esan zen batzarretarako diru-sarrera txikiagoak ekarriko lituzkeela, eta EH BILDU taldeak hainbat osoko bilkuretan horri buruz hitz egin zuen. Hori dela eta, galdetu du ea baldintza ekonomikoak aurreko legealdikoaren berdinak izango diren. Behin gehiago, gaineratu du, EH BILDUK desberdin jokatzan du oposizioan dagoenean eta gobernatzen dagoenean.
- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du alkate jaunak honako hau esan zuela hitzez hitz: “Kaos Etilico kontratatuko dugu, nire suhia dagoelako eta prezioa egingo digulako”. Legearen ikuspuntutik, baliteke kontratua ondo egina egotea, baina ikuspuntu etikotik, ikusi beharko da.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) hartu du hitza erantzuteko bere alaba ezkongai dagoela; hortaz, ez dago bere suhia den inor Kaos Etilico taldean.



- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea egiaztatu den Izoriako lokalen garbiketa egin eta ordaintzen den, ikasturte honetan ez direlako klaseak ematen ari.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) erantzun du fakturak berrikusi direla baina zenbateko globalarekin daudela; hortaz, begiratu dute eta nola konpon daitekeen aztertuko dute, eta oharra eskertu du, ez zirelako horretaz konturatu.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) alkate jaunari galdetu dio ea Etxegoiengo administrazio-batzarraren eskaerari buruz osoko bilkuretako grabaketak entzun dituen.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) ezetz erantzun du.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jauna (EAJ-PNV) martxoaren 21eko aktari buruz ari da, gai horri buruz hitz egin zenean, eta, bertan, alkate jaunak honako esku-hartze hau egin zuen: Etxegoiengo administrazio-batzarreko buruarekin hitz egiten egon da eta lagatzeko aukera eztabaidatu dute, batzarrak obra egin dezan; hori izan zen alkate jaunak martxoko osoko bilkuran esan zuena. Eta apirilko osoko bilkuran, Gentza jaunak alkateari adierazi zion Etxegoiengo administrazio-batzarreko buruak ez zuela lagapenari buruzko ezer esan, aurkakoa baizik, Udala izan dadin obra egiteko arduraduna. Eta alkateak erantzun zuen: “gaiarekin daude, baina berak ez zuen hori esan”. Apirilaren 18ko aktan alkate jaunak adierazi zuen ez zuela esan, baina martxoaren 21eko aktan hori esan zuela agertzen da, eta orain bertan onetsi dute.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) eskatu du San Prudencio eta San Isidroko jaietako gastu eta sarreraren berri jaso dadin.

Prudencio Otegui Echevarria alkate jaunak (EH BILDU) erantzun du dutenean batzorde batean aurkeztuko dutela.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea nork kudeatu duen azoka, Iratxe andreak edo Prudencio jaunak, eta galdetu du ea azokari buruzko salaketarik edo idazkirik egon den.

Prudencio Otegui Echevarria alkate jaunak (EH BILDU) erantzun du Abereren idazkia dagoela, zeinean adierazten duten aurreko gauean erditu zen behi bat aurkeztu zela eta ez zuela hor egon beharko, hala esan ziotela.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du horri buruz hitz egin nahi zuela. Azokako koordinatzaile batek agindu zuen behi hori atera dezatela; gainera, Animalien ongizatearen Legearekin bat, txahal hori ez zen mugitu behar, eta gidarik gabe zegoen; abeltzainak ez zuen jaramonik egin eta ez zituen animaliak azokatik atera.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) hartu du hitza eta erantzun du berak ez zuela azokaren egunean jakin, geroago jakin du; Aberek ez zion inola ere azokaren egunean bertan adierazi.



## Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) esan du Udala dela azoka antolatu zuela, eta jakin beharko lukeela. Gainera, galdetu du ea erakusketan ibili ezin izan zen behi horrek dieta kobratuko duen.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) ezetz erantzun du, dagoeneko Aberek abeltzainari jakinarazi diola.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du gainera behor bat egon zela gidarik gabe.

Prudencio Otegui Echevarria alkate jaunak (EH BILDU) adierazi du hori ere azoka jada amaitu zenean jakinarazi ziotela. Unean bertan ez zuen jakin, ez ziolako inork esan.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza adierazteko lehiaketa egiten denetik aurkez daitezkeen abelburuen gutxieneko eta gehieneko kopurua arautzen duen erregelamendua dagoela. Gehienez 10 eme eta 1 har aurkez daitezke, baina harrigarria iruditu zitzairen ustiategi batek 17 abelburuekin lehiatu zuela, erregelamenduak xedatutakoaren aurka doalako. Hortaz, argi dago azokaren antolamenduarekin adiago ibili behar direla, kasu gehiegi egon zirelako, eta Udala da antolatzailea.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza altuerako sastrakak kentzea eskatu zuten administrazio-batzarren zerrendari buruz galdetzeko, bidali behar ziotelako. Eta gaineratu du, bideen sastrakak kentzeari dagokionez, normalean maiatzaren inguruan kronograma bidaltzen zutela, eta ez daki dagoeneko izango duten ala ez.
- Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun dio zerrenda eta kronograma bidaliko diotela.
- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta espedienteen kudeatzaile berriari buruz galdetu du. Ea ezartzeko kronogramarik dagoen eta, era berean, galdetu du ea zinegotziek noiz izango duten funtzionamenduari buruzko prestakuntza.

Idazkari andreak hartu du hitza eta adierazi du datorren asteko asteartean kudeatzaile berria ezarriko dutela, migrazioa egin, eta berriarekin funtzionatzen hasiko direla. Ez daki ezer zinegotzien prestakuntzari buruz, baina badirudi egongo dela. Baina ez daki noiz.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu igerilekuak irekitzeko ordutegiari buruz adierazteko ez dela eskaintza hobetu; uztailean eta abuztuan, beti bezala 21:30ean itxi ordez, 21:00etan itxiko direla.

Izaskun García Aresti zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza eta adierazi du TaldeSPORT enpresari adjudikatu zaiola, eta eskaintako orduen hobekuntza-proposamenarekin, 21:00etan itxiko dela, eta ez 20:30ean, agirian eskatu bezala.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta adierazi du zerbitzu-prestazioa murrizten dela. Baldintzen agirian derrigorrez ixteko ordu gisa 21:30a jar zitekeen.



## Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Izaskun García Aresti zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) erantzun du enpresak egin duen eskaintza egin duela eta hala adjudikatu dela. Alde horretatik, agiriak azken lizitazioan atera zirenen berdinak dira.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hitz hartu du adierazteko batzordeak irekiak direla, eta galdetu du nola bermatuko diren hizkuntza-eskubideak; gaineratu du batzordeetarako itzulpen-zerbitzua izatea planteatu beharko luketeela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz adierazi du ez dela aurrerapen handirik egin gai horretan. Ikusi da ez dela jende asko etortzen batzordeetara. Jende gehiago doala ikusten bada, zer egin pentsatuko dute, euskarak duen pisuaren arabera.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) Luiaondoko kale-izendegia buruz galdetu du, ea nola dagoen.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun du Arailur prestatzen ari dela, baina oraindik amaitu gabe dagoela. Dagoeneko Luiaondoko kontzejuan erabaki zena helarazi zaie, eta dokumentu teknikoa prest dagoenean batzarrari bidaliko zaio, onar dezan.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) gaineratu du kaleren baten izena aldatuko badute Euskaltzaindiarekin adostu dezatela, lehenengo egin den moduan.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza Olabezarren egingo zen obra subsidiarioari buruz galdetzeko, ea nola dagoen.  
Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun du iritiz aldatu duela egingo den obrari buruz, ez delako hegala ebakiko; udal-arkitektoarekin hitz egin ondoren, eusteko saretak jartzea erabaki da. Aurrekontuak eskatu dira, baina oraindik ez dira heldu.
- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du erabaki denarekin jakinaren gainean egon gabe jarraitzen dutela. Batzordeetan behin baino gehiagotan galdetu dute, eta irteera-erregistroen bidez jakin izan dute argi publikoak mantentzeko agiriak idazteko zerbitzuaren kontratua Bilboluxi adjudikatu zaiola.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) erantzun dio jada enpresa adjudikaziodunaren izena jakinarazi zela.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ezetz, ez ziola esan.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du badirudiela bizikletak garbitzeko gunean matxura dagoela, eta konpontzeko dei dezaten eskatu du.
- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) Barrena kaleko aparkalekuei buruz galdetu du. Aipatu du arazoak aurkitu direla bota zen produktua altxatzen ari delako. Ez dakite horri buruz zerbait egin den, ez dakite arazoa obra-zuzendaritzaren agindu txarra izan den, edo enpresa erabiltzailearen aldeko egikaritze okerra.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus





# Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Izaskun García Aresti zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza eta erantzun du obrako zuzendariarekin bildu dela eta beste produktu batekin beste lagin bat egingo zutela, baina ezin izan dute egin. Teknikariek aipatu zieten lurzoru-mota horrek ez duela ondo funtzionatzen gainera bota zen produktuarekin.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu dio ea nork esan dion hori.

Izaskun García Aresti zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) erantzun dio obrako zuzendariak, enpresak eta udal-arkitektoak.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea hori proiektua idatzi duenak esan duen, orain esaten badu bernizak ez duela ondo funtzionatzen hormigoï horrekin, eta enpresak proiektuak agindutakoa ondo egikaritu duen, ba, ea nork hartuko dituen guzti horren gastuak.

Izaskun García Aresti zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) erantzun du Udalak ez, fidantza oraindik itzuli gabe dagoelako. Badirudi produktua bota zen unea ez zela egokiena.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza aipatzeko uztailen, haiek hasi zirenean, dagoeneko ikusi zela lurzoria altxatuta zegoela eta fidantza zegoela. Eta bere garaian, gaineratu du, arkitektoak adierazi zuen konponbidea ez zela erraza.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta gaineratu du berak nahi duena dela akats hori ordaintzen duena Udala ez izatea. Eta eskatu du jakinaren gainean mantentzeko.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea nola dagoen administrariaren lanpostuaren EPEa, duela denbora asko amaitu baitzen eskaerak aurkezteko epea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) euskaraz erantzun du begiratzeko ari dela, eskaera asko daudelako; beraz, izapidetzen ari den funtzionarioa libratuko dute zerrenda egiten has dadin, baina ez dela guztira heltzen, lan asko dagoelako; badirudi uztailerako egon daitekeela.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du ondo legokeela informazio hori horri buruz galdetu duten pertsoneri helaraztea.

EGINBIDEA, jasota uzteko 20:30ean Unai Campo Arenaza zinegotzi jauna osoko bilkuren aretotik atera dela.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) honako idazki hau irakurri du, Udalak azter dezan:

“Honen bidez, Aiarako Udaleko EAJ taldeak Aiarako Udalean egiten ari diren osoko bilkurak streaming bidez ematea eskatzen du.



Streaming bidezko emisioari esker, herritarrek gertutik jarraituko dituzte udal-esparruan hartzen diren erabakiak, eta bertatik bertara ezagutuko dituzte saio horietan planteatzen diren eztabaidak eta proposamenak. Gainera, saioen jarraipena erraztuko du, eta osoko bilkuretara edozein lekutatik sartu ahal izango da. Hori bereziki onuragarria da denbora, distantzia edo mugikortasuna dela-eta bertara joan ezin diren pertsonentzat, are gehiago gurea bezalako udalerrri sakabanatu batean.

Azaldutako guztiagatik, eta eskaera honek talde guztien adostasuna izango duelakoan, gardentasuna, herritarren parte-hartzea, gobernu ona eta gure udalerriko bizilagunen informaziorako sarbidea sustatzen lagunduko baitu, udal osoko bilkurak streaming bidez igortzeko eta Udalaren kanal digitalen bidez irisgarritasuna bermatzeko eskatzen dugu.

Udalak ez duenez beharrezko ikus-entzunezko baliabiderik, ez eta bitarteko digitalen bidez grabatzeko eta emititzeko prestatutako langilerik ere, uste dugu beharrezkoa dela kanpoko laguntza izatea osoko bilkurak emititzeko. Beraz, akta digitala epe ertainean martxan jarri aurretik, hura kontratatzea proposatzen dugu.

Por la presente, el grupo municipal del PNV de Ayala solicita la emisión en streaming de los plenos municipales que se celebran en el Ayuntamiento de Ayala.

La emisión en streaming permitirá a la ciudadanía seguir de cerca las decisiones que se toman en el ámbito municipal, así como conocer de primera mano los debates y propuestas que se plantean en dichas sesiones. Además, facilitará el seguimiento de las sesiones, pudiendo tener acceso a los plenos desde cualquier lugar, lo cual es especialmente beneficioso para aquellas personas que no pueden asistir en persona por razones de tiempo, distancia o movilidad, aún más en un municipio tan disperso como el nuestro.

Por todo lo expuesto, y con la confianza de que esta solicitud contará con el consenso de todos los grupos ya que contribuirá a fomentar la transparencia, la participación ciudadana, buen gobierno y el acceso a la información por parte de vecinos y vecinas de nuestro municipio, solicitamos que se ponga en marcha la emisión en streaming de los plenos municipales, y que se garantice su accesibilidad a través de los canales digitales del Ayuntamiento

Dado que el Ayuntamiento no cuenta con los medios audiovisuales necesarios ni con personal formado para la realización de las tareas de grabación y emisión por medios digitales, entendemos que es necesario contar con asistencia externa para la emisión de plenos por lo que proponemos se proceda a su contratación, previo a la puesta en marcha a medio plazo del acta digital.”

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza aipatzeko Laudiotar Txirrindulari Elkartearen eskaera bat ikusi duela futbol-zelaia erabiltzeko; harrituta dago, badirudielako ezinezkoa zela bertan praktikatzea.
- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea Pasadillasko edanlekuko uraren arazoa konpondu duten.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) erantzun du begiratu dutela eta badirudiela ur-burbuila dela. Ermandadearen egoera ekonomikoa dela eta, ezin dute mantentze-



# Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

lanetarako langilerik kontratatu, eta Ermandadeko kideak elkartuko dira erabakiren bat hartzeko. Izan ere, egin behar dena dakienak udal-langilea da, baina haien asmoa da berarengana jo behar ez izatea.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeia eta berrogeita bost minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezten, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita lauko maiatzaren hogeita hiruan.

O. E.

ALKATE-UDALBURUA,

Stua.: Prudencio Otegui Echevarría.

IDAZKARIA,

Stua.: Naiara Lazpita Marcos.